

EAE-REN NEKAZARI GAZTEEN EGITASMOA

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

EUSKO JAURLARITZA

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK

2004ko martxo



0. SARRERA

EAEren Nekazari Gazteen Egitasmoa, bere aldetik, *Gazte Plana II.* deritzonaren barruan txertaturiko *Erakunde-Politiken* barruan kokatzen da, ekintza espezifikotzat kokatu ere.

Beraz, ekintza hau *Gazte Plana II.* delakoaren barnean kokatzen da, "Lana eta Lan-txertaketa" I. Arloaren barruan, 1.4.9. ekintzatzat sailkatua. Esan genezake neurri-sorta egituratu bat martxan jartzeko EAEn eginiko lehendabiziko saiakera serioa dela, nekazaritza-ustiategien zaharkitze-arazoari modu integralean aurre egiten diona. Zaharkitze hori EB osoaren berezko buruhaustea da, eta halako neurriek sektorearen eta landa-ingurunearen gaztetzea ahalbidetu lezakete.

Beste aldetik, Egitasmo honek EAEren Landa-Garapen Jasangarri Plana 2000/2006 osatzen du, gaur egun indarrean dagoena, ezen sektorea gazteagotzeko neurriak ez ezik landa-ingurunearen bizitza-kalitatea hobetzeko neurriak ere biltzen baititu: Honako neurriak dira, zehatz esanda: I. Neurria (nekazaritza-ustiategietan eginiko inbertsioak), II. Neurria (Nekazari gazteen instalazioa), IV. Neurria (nekazaritza-jardueraren erretiro aurreratua), IXe Neurria (Landa-inguruneko ekonomia eta populaziorako oinarritzko horniketa-zerbitzuak) eta Ixq Neurria (jarduerak aniztea nekazaritza-alorrean eta antzekoetan).

Erakunde arteko Egitasmoa dugu beraz, bultzada eta sustapena Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien Nekazaritza-Sailen eskuetan geratu delarik. Edonola ere, egitasmoa burutzeko orduan sektorearen oinarritzko agente nagusiek parte hartu dute, zuzenki lotutako erakundeek gain: nekazaritza-sindikatuak, Mendikoi, IKT, Nekazaritza-Kooperatiba Federazioa, LGE deritzonak eta abar.

Egitasmoa hogeitaurriritan burutzen da, 10 urteko ekintza-epe batean. Dena den, bai abian jartzeari dagokionez bai ekintza ezberdinen funtzionamendu eta baliozkotasunari dagokionez, neurriek euren berezko eragile osagarriak izango dituzte (ikus ezazue VII. Atala). Hala ere, kontuan hartutako oinarritzko denbora-esparrua 2005-2014 epean hedatzen da, biak barne.

Ildo honetan, Egitasmoaren ekintza-esparrua Gazte Plana II (2002-2005) eta LGJE-ren (2000-2006) indar-epeez gaindi hedatzen da denbora aldetik; Hau hala izaki, aurrerako plangintza-aldietan azken bi horiek gure Egitasmo honen lotura eta uztardurak aintzat hartu behar izango dituzte.

Egitasmoak proposaturiko neurri-sorta honek, hain zuzen, sektorea gaztetzeko gaur egungo esparrua berpiztu edo sendotu gura du. Neurri batzuk erabat berriak izango dira, beste batzuk dagoeneko azaltzen diren zenbait neurriren indartzea baino besterik ez direlarik. Edozein kasutan, Egitasmo honek ez dauka inolako eraginik guztiz egokiro funtzionatzen duten gazteak sustatzeko neurrietan (Trebakuntza arautu nahiz arautu gabeko ikastaroak, aurretiko erretiroak, nekazaritza eta landa ingurunerako monitore eta sustatzaile programak...).

Egitasmo honetan gaur egun burutze-fasean dauden beste esparru arau-emaile batzuei buruz egiten diren apamenak (Nekazaritza Politika Legeari edo baso-nekazaritza SLPri dagokionez adibidez), berriz, Egitasmoa bera aurrera eramateko eta garatzeko berezko

ahalmena baldintzatu barik egiten dira. Dena den, behin onartuta izanik, esparru arau-emaile hauek Egitasmo honetan aurrez ikusitako zenbait neurri indar lezakete.

I.- EGITASMOAREN HELBURUA

Egitasmoaren helburua honakoa da: euskal nekazaritza alorrean nekazari gazteen sarrera eta iraupena bultzatzea. Era berean, dagoeneko nekazaritza-jardueran lanean diharduten gazteen jarraipena ere sustatuko da. Hori guztia, gainontzeko euskal gizartearen egoerarekin pareka daitezkeen jardueragarapen eta bizitza-baldintzen planteamendutik abiatuz.

Gazteak laborantza-esparruan sar daitezen aldeko sustapena dugu Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza sailak legealdi honetarako hartu duen oinarritzko ildo. Izan ere, bai Jaurlaritzako bai Aldundietako Nekazaritza Sailek betidanik izan dute politika hori lehentasunezkoztat, baina gaur egungo egoerak neurri batzuk premia hartu beharra dagoela azaltzen du, euskal nekazaritzan belaunaldi-ordezkoztaren aldeko lana egingo bada.

Egun, gure eguneroko jardueren joko-arauak aldatzen dituen esparru orokor baten aurrean gaude. Ildo honetan, landa-inguruneak eta lehendabiziko sektoreak oro har, berezko egitura-baldintzatzaileak izan arren, orain arte baino askoz abiadura bizkorragoan arituko diren dinamika aldakorretara moldatzen jakin behar izango dute.

Horrek, bere aldetik, landa-ingurunean bizi eta lanean ari diren aktore nagusiek (laborariek, enpresariek, emakumeek, eta abarrek...) zenbait enpresa-dinamiketara moldatu ahal izateko ahalegin gehigarria egin behar izango dutela dakar, eurek betetzen dituzten funtzio guztiak gizartearen aurrean balioztatu ahal izateko.

Landa-Inguruneari eskatuko zaion –edo, dagoeneko eskatzen ari zaion- enpresa-dinamismo hau gure lurraldean ezarriko bada, zeregin horri eusteko moduko gazteriak osatutako gutxieneko oinarri baten gainean izango da, euskal baserri-inguruneak gure gizarteari eskain diezaiokeen potentzial osoa garatzeko aukera izateko.

Hala ere, nekazaritza-esparruak azaltzen duen zaharkitze-egoera larriak agerian uzten du alor hau, gure herrialdeko beste produkzio-alor batzuen aldean, jasaten ari den benetako lan-egoera, batez ere lanbiderako sarrera edo hasierako urratsei ari garelarik. Honako alderdietan labur daiteke:

- ❑ Euskal nekazaritza-esparruan oso soldatapeko eskulan urri dago (U.L.U.en % 8). Euskal nekazaritza-langilea, orokorrean esanda, enpresaria dugu edo ustategirako sendi-laguntzaile aritzen da.
- ❑ Produkzio-azpisektore gehienetarako sarrerari dagokionez, diru-sarrera handiak sartu beharra eskatzen du; gauzak horrela, eta lortzen diren errentagarritasun-mailak aintzat hartuta, amortizazio-epe luzeak behar dira eta finantzaketa zailtasun handiak izan ohi dira.
- ❑ Esparruaren produkzio-bitarteko nagusiak, hau da, landa-lurzoruak, oso mugikortasun urria dauka. Horrez gain, bizitoki, industria eta azpiegitura erabileretarako geroz eta presio handiagoak jasan behar izaten ditu, eragile horrek merkatuan azaltzen den lurzorua ikaragarri garestitu egiten duelarik. Aurkako ildotik, berriz, produktibitate errentagarriak lortzeko lurzoru-premiak orduan eta handiagoak dira, eta maiorazkoaren desagerpenak jaraunspenetan burutzen diren lur-sail banaketetan du eragina.

- ❑ Produkzio-azpisektore gehienek beste esparru batzuek baino errentagarritasun txikiagoak azaltzen dituzte, horietako askotan diru-laguntzak beharrezkoak izaki marjina garbi positiboak lortu ahal izateko.
- ❑ Landa-esparruaren lan-baldintzak (batik bat abeltzaintzari dagokionez) beste lan-jarduera batzuenak baino askoz gogorragoak dira (jarduera fisiko nabaria, ordutegi finkorik eza, oporrez gozatzeko aukerarik eza sarri askotan, landa-inguruneak hiri-inguruneak baino ekipamendu nahiz zerbitzu urriagoak izatea...).
- ❑ Esparruak lan-irudi negatiboa agertzen du, baita bere profesionalengandik ere, eta hori hala izateak esparruan sar litezkeen gazteak atzera uxatzen ditu.
- ❑ Alderdi hauen guztien ondorioztat, azkenik, esan dezagun euskal landa-esparruak gure herrialdeko beste edozein esparruk baino zailtasun ugariagoak dituela gazte-enplegua jasotzeko orduan. Bestelako alor batzuetan ez bezala, kasu honetan arazoa ez datza sarrera-aukeran, sartzeko borondate edo gogoan baino. Egon badaude gazte-potentzial taldeak, baina ez dute esparruan sartzeko adinako pizgarriak topatzen.

Hori dela eta, euskal nekazaritza-sektoreak agertzen duen espezifikazio honetatik abiatuz, gure gizarterako estrategikoa den (hainbat arrazoi direla kausa) sektore honen iraupena ahalbidetuko lukeen belaunaldi-ordezkatza prozesuari premia heldu beharra egonik, Euskal landa-erakundeek legealdi honetan zehar sektore honetarako *Nekazari gazteak sartzeko Egitasmo zehatzari* heldu eta garatu nahi dute. Horrela, diziplina anitzetako ikuspegi global bat abiapuntutzat, euskal landa-ingurunearen belaunaldi-ordezkatza behin betiko bultzatuko dituzten neurri eta ekintzak abian jarriko liriteke. Beti ere, gaurko joera buruz behera jartzea posiblea eta beharrezkoa den uste osoarekin.

Posiblea da, ezen euskal nekazaritza-esparruak *nekazari gazteak eskuratzeko adinako etorkizuna nahiz potentzialtasunak baitituo*, euren lana ordaintzeko moduko jarduera batean iraun dezaten bizitza-kalitate baldintza duinekin.

Beharrezkoa ere bada, euskal nekazaritzak *landa-jarduera bere alderdi guztietan berpizteko profesional gazteen premia duelako*, enpresari lotuago legokeen eta dinamikoagoa litzatekeen ikuspegia emanik.

Izan ere, esparruan jadanik sartuta dauden titular gazteek, beren aldetik, profesional-talde dinamikoena eta berritzaileena osatzen dute: prestakuntza hobea dute, kudeaketa-programetan sarturik daude, gehiago inbertitu egiten dute...horrez gain, euren etorkizun-ikuspegietan ustiategiak mantendu eta handitzeko asmoa dago (ikus ezazue 1. ERASKINA).

Egitasmoak oso helburu handizalea du, eta arrakasta lortu ahal izateko hainbat erronkari aurre egin beharko dio. Esparruaren inguruko multzo guztietan moldeak aldatu beharko dira, alorrak berak gizarteari eskaintzen dion irudi eskasa baztertu, konfiantza sortu, aktibo berrien sarrera errazteko tresnak garatu...eta euskal nekazaritzan eragina duten erakunde nahiz esparru mailako agente guztien partaidetza eduki ere bai. Azken batean:

Egitasmo honek euskal nekazaritza-esparru gaztetu eta dinamiko baten oinarriak finkatzeko beharrezkoak diren neurriak artikulatzeko baliabidea edo tresna izan nahi du, zain dituen erronka zorrotzei arrakastaz aurre egiteko gai dena.

II.-GAUR EGUNGO EGOERA

Euskal nekazaritza-esparruak azaltzen duen egitura-ahultasunik handienetako bat, zalantzarik barik, EAEko ustiategien titularren zaharkitze altua da. Horrekin batera, gainontzeko ahultasunek ere aipatutakoaren baitan eragina izan ohi dute, bai produkzio-sarean bai landa-ingurunean.

Alderdi hau Europako nekazaritza gehienetan errepikatzen bada ere - are gehiago gurea bezalakoa den mendi-nekazaritzen kasuan-, euskal nekazaritza-esparruaren zaharkitze-adierazleak benetan kezagarritzat jo daitezke. Egoeraren adierazgarri gisa, azken Nekazaritza-Erroldaren (1999) datuen azterketatik ikus daitekeenez, une hauetan ustiategi guztien % 10 baino ez dago 40 urtetik beheragoko titularren eskuetan, eta hauetako % 51k nekazaritza ez ezik beste jardueraren batean ere dihardute.

1999KO ERROLDA

USTIATEGI KOPURUA	ADINA			Guztizko orokorra
	JARDUERA	ADINA <= 39	40 <= ADINA < 65	
Beste jarduera nagusirik	2024	8736	307	11067
Bigarren mailako beste jarduerarik	101	327	29	457
Pertsona juridikoa	417	1211	358	1986
Beste jarduerarik gabe	1446	9128	15932	26506
Guztizko orokorra	3988	19402	16626	40016

Gainera, aipatu den portzentaia hori bi puntutan jaitsi da azken 10 urteotan (Aktibo-bilakaera taula ikusi), eta zeharo datu larriak azaltzen dira, hala nola Bizkaiko titularren % 5 laurogei urtetik gorakoa dela.

Edozelan ere, errentagarritasun minimodun ustiategien multzoa aztertuz gero datu hauek arindu egiten dira nolabait (6 EDUtik gorako ustiategiak edo 7200 euro baino gehiagoko marjina gordina dutenak), eta kasu honetan, titularra berrogei urtetik beherakoa duten ustiategien portzentaia % 17,3koa da, 0,6 puntuko jaitsiera baino ez azaltzen dutelarik (89-99 Aktibo-Bilakaera Taula ikus ezazue)

Horretaz gainera, portzentaia guztien azterketa hutsak duela hamar urtekoak baino egoera okerragoa azaltzen badu ere, ez daiteke uka nolabaiteko belaunaldi-ordezkatza dagoenik, kasu askotan adin berantiarretan izan arren, baita gazteen neurrizko sarrera azaldu ere. Horrekin batera, 65 urtetik goragoko ustiategien desagertzea ere nabarmentzen da. Lurraldeak elkarrekin alderatuz, Bizkaia da nekazaritza-populazio zaharkituena azaltzen duena (ikus ezazue Lurraldeen araberako Banaketa-Taula).

LURRALDEEN ARABERAKO BANAKETA

THID	ADINA			Guztizko orokorra
	ADINA <= 39	40 <= ADINA < 65	65 <= ADINA	
01: Araba	1205	3844	2166	7215
20: Gipuzkoa	1228	6322	4896	12446
48: Bizkaia	1555	9236	9564	20355
Guztizko orokorra	3988	19402	16626	40016

Iturria: EAEko Nekazaritza-Erroldak

AKTIBO-BILAKAERA 1989-1999

	1989	1999	Δ%
USTIATEGI KOP.GUZT.	43.193	40.016	- 7,3
TITULARRAK < 40 URTE	5.101	3.988	-2,0
U.L.U. OSOAK	29.531	28.335	-4,0
Senitartekoa	27.459	25.344	-7,7
Soldatapeko finkoa	1.276	2.310	+81,0
Behin-behinekoa	796	681	-14,5
NGS AFILIATU KOPURUA	14.834	10.893	-26,5
USTIATEGI KOP. > 6 EDUtik gorako USTIATEGI KOP. (1,2 M. pezeta)	9.826	10.337	+5,2
TITULARRAK < 40 URTE	1.756	1.788	-0,6
TITULARRAK 40-65 URTE	6.386	5.836	-8,6
TITULARRAK > 65 URTE	1.684	2.713	+61,1

Iturria: EAEren Nekazaritza-Erroldak

Dena den, titulartasun edo jabetasun arazoa alde batean utzita, ez dezagun ahaz gazte ugarik sendi-laguntzaile jarduten duela ustiattegietan, pertsona-kopuruan egindako emaria baino 10 puntutan altuagoa den lan-karga betetzen dutelarik. Hortik atera daitekeen ondorioa, beraz, ustiattegietan etorkizunerako ordezkariak izan litezkeen gazteak egon badaudela dugu, beti ere hau guztia gauzatzeko nahitaezkoak diren faktoreak tartean azalduko balira.

Hala ere, nekazaritza-jarduerarekin batera beste jarduera nagusiren bat duten gazte askok zera baieztatzen du, lan-baldintza hobekiak eta errentagarritasun ekonomiko oparagoak dituzten beste alor batzuen lehia garbia dagoela. Lehia honetan, hain zuzen ere, ekin beharra dago, esparruan gero eta sarrera gehiago izan dadin eta, batik bat, egonkorragoak eta alderdi ekonomikoan errentagarriagoak izan daitezen.

Edozein kasutan, esparruak jasaten duen belaunaldi-ordezkotza eza adierazten dute datu hauek; Horrek, bai nekazaritza-enpleguen galtze jarraian bai dinamismo eta berrikuntza galeran du isla, etengabe aldatzen ari den inguruneak ezartzen dituen lehia-erronkei heldu ahal izateko bata nahiz bestea beharrezkoak izaki; Izan ere, une guztietan ingurunean moldatzen jakin beharra dago.

Joera hau iruntzietara jartzeko moduko formularik aurkitu ezean, ordezkotza ezak Euskadiko nekazaritza-esparruaren galera ekar lezake nahiko epe laburrera. Beraz, alorraren etorkizuna dago jokoan, eta euskal gizarteak esparruari argi eta garbi uko egiteko prest izan ezean, joera hori aldatzeko ahalegina gauzatzeko orduan ustiatzearen belaunaldi-gazteagotzearen aldeko postura irmoa egin beharko da. Hori da, hain zuzen ere, orain arte bizi izan duena baino askoz dinamikoagoa eta konplexuagoa izango den inguruneari aurre egiteko moduko egoeran izateko aukera emango dion modu bakarra, esparruak bizirik iraungo badu.

III.-ESZENATOKIAK

Gazteak landa-esparruan sar daitezten ala ez funtsean baldintzatuko duten eszenatokiei dagokienez, euskal landa-erakundeek hainbat harten dute aintzat; eszenatoki horiek, alde batetik, gazteek jardueran erabili beharko dituzten ahalmenen islatzat har daitezke. Beste aldetik, ordea, jarduera bera mugatzen duten barne nahiz kanpo markoen adierazpentzat.

Honako Egitasmoak ondoko eszenatokiei erantzun egokia eman beharko die:

- Gero eta konplexuagoa den landa-ingurune eta nekazaritza-esparru honetan, ustiategiak eskaintzen dituen aukera ekonomikoekin (nekazaritza mailakoekin nahiz bestelakoekin) bat doazen trebakuntza, profesionaltasun eta moldagarritasun mailak eskatuko zaizkio nekazari gazteari.

- Esparruan lehendabiziko aldiz sartzen den gazteak, beste aldetik, beste ekonomia-alor batzuetan jadanik sustraituta dauden enpresa-dinamika batzuk bere gain hartu beharko ditu, bizkortasunez sartuz. Hona hemen dinamika horiek:
 - Informazio-teknologia berrien erabilpena, ezen zenbait zereginetarako oinarritzko tresnak baitira: merkatuen gaineko informaziorako sarrera zuzena, hornitzaile nahiz bezeroentzako sarrera, produktu-sorta batzuen merkataritza elektronikoa, eta abar.
 - Lehiakideen portaeren azterketa iraunkorra.
 - Operatzaileen birziklatze eta trebakuntza iraunkorra.
 - Kanpo-ikuskaritzek egiaztaturiko kalitate-arauetan oinarritutako antolaketa-prozesuen ezarpena.
 - Marketinga, produktuen aurkezpenean kontuz ibiltzea, elikadura-segurtasuna eta produkzioen taxugarritasuna, eta abar.
 - Beste produktoreekiko elkartze-sinergien bilaketa, produkzio-eraginkortasuna eta produktuak merkaturatzeko negoziazio-gaitasuna hobetzeko asmoz.

- Nekazari gazteak lurra eskuratzeko aukera izan beharko du, euskal nekazaritzan zeharo baliabide urria izan arren, batez ere lautadetan eta ibar-hondoetan dauden lurrak, nekazaritzarako hobeak baitira. Oso baliabide urria dela esan dugu, zeren horien gainean hiri eta azpiegitura erabileretarako eskaera handia baitago. Hori ez ezik, nekazaritza-erabilerarako lurzoru-merkatu ezak ere -edo arlo horretan azaltzen den zailtasunak, behinik behin- eragin nabaria izan ohi du.

- Nekazari gazteak NBP eremu berri bat du aurrean. Bertan, zenbait azpisektoretan dauden laguntza zuzenetan sartzeko aukera sano murrizturik azalduko da. Beste alde batetik, lehenengo instalaziorako eta diru-sarrera berrietarako egitura-laguntzak ugaritu badira ere, adineko titularrei dagokienez ez da nekazaritza-jarduera laga dezaten bultzatzen.

- ❑ Nekazaritzak, gizarte mailan prestigioa duen jarduera bihurtu beharra dauka, esparru honetan lanean ari den edo sartu nahi duen gaztearen autoestimu profesionalari bidea emateko adinekoa.
- ❑ Azkenik, nekazari gazteak Euskal Herriko gainontzeko bizilagunen antzeko bizitzakalitate egoera beharko du izan; Bizi den landa-ingurunea dela eta, ekipamendu nahiz zerbitzu kontuan ezin izango zaio eskatu ez berari ez bere sendiari egoera nekezik edo penagarririk jasan behar izatea.

Azpi-sektore-eszenatokiak (Ikus ezazue informazio zehaztua II. ERANSKINean)

Atal honetan, euskal nekazaritzaren produkzio-azpi-sektore garrantzitsuenek azaltzen duten egoera ezberdinen ikuspegia eskaintzeko asmoa dago, gazteak bertan sar daitezzen.

Labore estentsiboak Araban

Sarrera-hesiak gaitzak dira azpi-sektore honetan, mekanizazio nahiz instalazioetarako kapital-premiak direla eta, lur-eskaintza urria dela eta, eta abar.

Azpi-sektoreak orokorrean duen erakargarritasuna mugaturik dago, patata eta zerealen kasuan batez ere, sarrera-hesia altuak eta marjina txikiak direla kausa. NBPrene erreformaren aurrean zalantza ugari azaltzen duen azpi-sektorea dugu honako hau. Edozelan ere, baratzegaintza estentsiboa bezalako laboreek, esate baterako, azpi-sektore honi eusteko lokarria ekar dezakete, egin beharreko diru-sarrerak ez baitira oso handiak eta marjinak garrantzitsuak direlako. Dena den, ureztapen-ur asko eskura izatera behartzen dute labore hauek.

Azpi-sektore honen belaunaldi-ordezkatzeari dagokionez, neurri handi batean ustiategiaren beraren profesionalizatzeko eta dimentsio mailan datza gakoa. Beste azpi-sektore batzuen aldean, ordea, ordezkatzea maila ez da hain baxu agertzen, hainbat faktore dela kausa: eskulan premia handirik eza, trebakuntza-ahalmen berezien beharrik eza, eta eskualdeko bizilagunen bizitzakalitatearekin nahiz beste jarduera batzuekin bateragarriak izatea.

Ardogintza Arabako Errioxa

Sarrera-hesiak handiak dira kasu honetan ere, kapital premia handia, eskubideak eta lurraren prezio altuak direla eta.

Azpi-sektorea berez oso erakargarria da, prestigiozko produkzioa delako, marjina garrantzitsuak dituen, errenta-sortzeko ahalmen handia duena eta merkataritza-zabaltze prozesu batean dagoena.

Azpi-sektore honen belaunaldi-ordezkatzea ertaina/altua da, berak sortzen dituen aukera ekonomikoak direla medio, batez ere. Beste aldetik, produkzio-jarduera honek ederto egiten du bat landa-ingurune horren bizimoduarekin (nekazaria herrian bertan bizi da, beste jardueraren batean arituko balitz bezala, eta inguruneko gainontzeko herritarrek dituzten zerbitzu berberak izan ditzake, eta abar).

Berotegi azpiko baratzezaintza

Kasu honetan, sarrera-hesiak beste azpisektore batzuetan baino eskasagoak dira, produkzio-jarduera aurrera eroateko lurzoru-premia txikiagoa baitago. Seguruenez, azpisektore honetan gainontzekoetan baino erraztasun handiagoa dago nekazaritza-eremutik kanpoko aktibo berriak sar daitezen: beraz, eta behin zenbait oztopo kenduta, nekazaritza-esparruan gazteak sartzeko aukera hobekia eskaintzen ditu. Edonola ere, lur egokia urria da eta instalazio mailan diru-sarrera handiak egin behar dira.

Azpisektoreak profesionalak eskuratzeko duen ahalmena benetan esanguratsua da, zeren eta lor daitezkeen errentagarritasun handiek nahiko modu eroso eskaintzen dute alde aurretik eginiko diru-sarrerak amortizatzeko. Nolabaiteko trebakuntza maila bat ere behar da, baita eskulana eta produkzio-prozesuaren zenbait unetan laguntza ere.

Kasu honetan, ustiategi profesionaletan eta finkatuenetan esan behar da belaunaldi-ordezkatza handia dagoela.

Esnetarako behi-azienda

Sarrera-hesi zorrotzak dituen azpisektorea da, kapital premia, azaltzen diren produkzio-murrizketak (kuotak, alegia), gero eta ingurugiro-neurri zorrotzagoak eta dimentsio minimo altu baten –dimentsio horren azpitik bizirik irautea zaila izaki- behararen eraginez.

Horren ondorioz, azpisektoreak duen erakargarritasuna mugatua da; horrez guztiaz gain, beharrezkoak diren finantzaketa-premiak kontuan hartuta, oso marjina estuak izan ohi dira, eta eskulan behar handia –ardura maila garrantzitsuarekin- dago. Horrek guztiak abeltzainaren bizitza-kalitatean du eragina. Neurri handi batean, gaur egun azpisektore honetan sartzen direnek bokazioz egiten dute.

Ustiategiaren profesionaltasun mailak zeresan handia dauka ordezkatzari dagokionez. Jadanik ondo erroturik dauden ustiategietan, eta azpisektorearen berezko bokazio-kutsua aintzat hartuta, ordezkatza errazagoa da. Gainera, kasurik gehienetan produkzio-jarduera honetarako jarraipena ekartzen du.

Haragitarako behi-azienda

Landa-eremutik kanpo etorritakoek sarrera-hesi altuak topatzen dituzte (produkzio-eskubideen nahiz diru-sarrera handien beharra), baina esnetarako behi-abeltzainen kasuan (haragitarako behi-abeltzain sartuta) hesi horiek ertain bihurtzen dira, altuak baino.

Azpisektore honek ez du oso erakargarritasun alturik azaltzen, errentagarritasuna lortu ahal izateko laguntza-eskubideak izan behar baitira. Dena den, eskulan kontuan eta profesionalizatzean ez du behar handirik eskatzen, eta zenbait kasutan lurra bereganatzea erraza izan daiteke, herri-larreak edo bestelako herri-lurrak erabili ahal izategatik.

Orokorrean esanda, azpisektore honetan ikus daitezkeen belaunaldi-ordezkatza ertaintzat jo liteke, zeren eta eskubideak ustiategiari atxikiturik baitoaz. Horrez gain, jarduera hau beste batzuekin ondo bateragarria da, bai nekazaritza-eremuko beste batzuekin bai eremu horretatik kanpoko zenbaitekin.

Esnetarako ardi-azienda

Azpi-sektore honetako oinarritzko sarrera-hesiak lurraren eskuragarritasunari lotuta daude, baita trebakuntzari ere, baso-larratze erabilera nahiz gaztagintza arloetan. Hasieran ez da diru-sarrera handiegirik behar, baina eskala-ekonomia garrantzitsuak dituen azpi-sektorea da: Horrek, dimentsio minimo bat eskuratu beharra dakar.

Aurrekoaren aldean, sektorearen irudi soziala baxu samarra da. Baliteke artzainaren gainean dagoen ikuspegi sozial eskasak irudi horren azalpena eskaintzea; Edozelan ere, hainbat ekimen dela medio (gazta-txapelketak, *Artzai Eskola...*) azken urteotan artzainari buruzko irudi hori hobetu egin da. Beste edozein abeltzaintza-jarduerak bezala, honek ere zaletasun kutsu handia izan ohi du, esnetarako behi-aztiak baino neurri txikiagoan bada ere.

Belaunaldi-ordezkatza txikia dago honakoan, alde batetik jardueraren berezko loturengatik eta bestetik jadanik aipatu dugun arrazoiengatik, hots, gazteek lanbide honi buruz izaten duten ezezko irudiagatik.

Baso-ustiapena

Azpi-sektore honek sarrera-hesi altuak ditu, kapital, lurzoru eta inbertsioak amortizatzeko beharrezkoa den epe luzea kontuan hartuta. Dena den, errentagarritasun ona duen sektorea da.

Badaude azpi-sektore honi erakargarritasuna murrizten dioten beste faktore batzuk: Hasierako inbertsioan beharrezkoak diren finantzaketa-premiak, ustiategian une jakin batzuetan azaltzen den eskulan behar handia, Euskal Herria bezalako ingurune menditsu bateko basogintzak berez dituen zailtasunak, aldeaz aurretik nekez aurreikus daitezkeen –batzuetan ezinezkoa izanik- arrisku batzuen menpe egotea (suteak, izurriak, prezioen bilakaera...), beste sektore batzuekiko arazoak, eta abar.

Beste alde batetik, baso-ustiapen lanak bultzatzen dituzten elementuak ere aipatu behar ditugu: Administrazioak arloari buruz duen ezagutza, egituraketa-maila eta I + G deritzon gauzatutako ahaleginak, esate baterako.

Ustiategiaren barruan produkzio-jarduera bakartzat gutxitan azaltzen den azpi-sektorea – bestelako jarduera batzuekin bateragarria da, beraz- dela aintzat hartzen badugu, esan behar da belaunaldi-ordezkatza maila ez dela baxuenetakoa.

Beste azpi-sektore batzuk

Euskal laborantza-esparruan hain erroturik ez dauden beste azpi-sektore batzuei begirada botaz, gazteen lehendabiziko instalaziorako aukerak izan litezkeela aipatu behar da, hala nola frutagintza, txakolina, txerri-azienda edo kunikultura (untxigintza). Kasu hauetan, halako zereginetan sartu ahal izateko, gazteak produktuaren balio-kate osoan zehar moldatzeko duen gaitasunean datza arrakasta, bereziki bere merkataritza-zirkuitu propioa sortzeko gaitasunari dagokionez.

IV.-EGITASMOAREN XEDEAK

Egitasmoaren xede nagusia honakoa da: esparrua bultzatzeko laguntza-eskema zehatza burutzea, integrala eta diziplina anizetakoak, deskribatu diren eszenatokiei erantzuna emateko adinakoa eta epe ertainean sektorearen gazteagotze eraginkorra ahalbidetuko duena.

Erakundeetatik sortutako laguntza-eskema hau sortzeko beharrari dagokionez, esan dugun eskema sortu barik gaur egun sektoreak azaltzen duen zahartze-joera honi itzulia ematea ezinezkoa izango delako ustean gaude.

Partaidetza publikoa ezinezkoa da edozein jarduera-esparrutan, merkataritza-planteamendu hutsetatik bideratu diren eta desiragarriak ez diren ibilbide batzuk zuzentzeko. Ildo honetatik, eta erakundeetatik sortutako gazteria-politikak erabat justifikatuak badira ere (Euskal Herriaren kasuan, *Gazte Plana II* delakoan integratuak), laborantza-esparruari lotutako arazoak, bere ezaugarri berezi eta eraginekin (sozialak, lurralde mailakoak, ingurugiro mailakoak...), gazteei eta nekazaritzari bereziki zuzendutako neurri zehatzak eskatzen ditu.

Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailaren ekimenez sortutako Egitasmo hau, ordea, esparruaren beraren ekintza-eremuz gaindi doa; Izan ere, esparruan lanean sartzeko aukerak mugatzen dituzten eremu eta alderdi guztietan eragina izateko asmoa du egitasmo honek, eremu eta alderdi ugari izaki. Horregatik, Egitasmoak sailen arteko eta erakundeen arteko lankidetzatik zehazten ditu bere ekintzak (hiru Foru Aldundien Nekazaritza Sailen inplikazioarekin batik bat), arrakasta lortu ahal izateko sektore-agente nagusien inplikazio aktiboa ezinezkoa delarik.

Helburu espezifikoak

Ezaugarri hauetako Egitasmo baten kasuan, zaila da epe jakin batean sektorean zenbat gazte sartu behar diren zehatz-mehatz esatea.

Ildo honetan, Egitasmoaren xede izan daitekeen populazio potentzialaren gaineko ebaluaketa bat zehaztea ere gaitza da, ezen belaunaldi-ordezkatzarako aukerak dauzkaten gazteak ez ezik, gazte multzo zabala ere bereganatzen baita egitasmoaren barnean: Nekazaritza-irakaskuntzako ikasleak, landa-guneetako biztanle gazteak, eta landa-ingurunearekin nolabaiteko joera edo sentiberatasuna duten hirigune-gazteak ere bai.

Ebaluaketa-epearen zehaztapenari egokituz (ikus VIII. Atala), kontuan hartu behar da estatistika-jarraipenik fidagarriena Nekazaritza-Erroldaren bitartez burututakoa dela, eta errolda hori hamar urtetan behin (hurrengo 2009rako aurreikusia da) egiten da. Beraz, badirudi 1999-2009 bitarteko epea lehendabiziko erreferentziatzat hartzea komeni dela, Egitasmotik ondorioztatutako neurriak aurtengo 2004 urtean zehar eta 2005eko zati handi batean indarrean jarriko diren arren.

Era honetan, hona hemen ezarri beharreko aurreneko xede espezifiko bat:

Erreferentziatzat hartu dugun aurreko epeko (ikus ezazue gaur egungo egoera) joera alderantzikatzea, hau da, 1999-2009 epean zehar 40 urtetik beherako ustiategi-titular gazteen bilakaera positiboa lortzea (minus bi puntu aurreko epean). Bereziki 6 EDUtik (UDE) gorako ustiategi-titularrei dagokienez (minus 0,6 puntu aurreko epean).

Dena den, eta aldean daraman arriskua albo batean utzita, Egitasmoak aurreneko helburu espezifikoa hau gainditzeko asmoa dauka, Egitasmoa indarrean dagoen bitartean izandako sarrerak kuantifikatuz. 10 urteko epea du, 2005etik 2014ra bitartean, biak barne, ezen sektorea benetan gaztetzeko orduan derrigorrezko epe minimoa delakoan baikaude Horretarako, ondoren Egitasmoaren xede izan daitekeen populazio potentzialerako hurbilketa egiten da.

Populazio potentziala (Ikus ezazue informazio azterketa III. ERANSKINean)

Egitasmoak helburutzat duen populazioaren azterketa egitekotan, helburu potentzial iturri nagusi bi erabili dira:

- ❑ Gaur egun aktiboak diren eta 55 urtetik gorako titularra duten ustiategiak (4.508 Euro edo 750.000 pezetako marjina gordina baino gehiago duten ustiategiak aintzat hartu dira; 1999ko Nekazaritza-Erroldaren datuak).
- ❑ Mendikoiren mendeko Trebakuntza-Zentroetan buruturiko ikastaro arautuetatik irtendako ikasleak.

Ondoren, hurrengo hamar urteotan sektorean sar litekeen populazio potentzial gaztearen estimazioak adierazten dira, kidetasun edo antz multzo ezberdinetan banatuak:

- ❑ Ordezkorik badutela aipatu duten baina sendi-laguntzan inor ere ez duten ustiategiak: 150 titular potentzial.
- ❑ 40 urtetik beherako sendi-laguntza duten ustiategiak: 641 titular potentzial. Hauei, epean barrena gerta litezkeen sartzeko berriei dagokien % 10 gehitu beharko litzaieke. Guztira: 682 titular potentzial.
- ❑ Mendikoiren trebakuntza-ikastaro arautuetatik epe honetan zehar irtengo diren ikasleak: 350 titular potentzial.
- ❑ Araututa ez dauden trebakuntza ikastaroetatik irtendako ikasleak: 150 titular potentzial.
- ❑ Unibertsitate esparruetatik etorritako ikasleak: Nekazaritzako Injineru Eskolak, Basogintzako Injineruak, Nekazaritzako Injineru Tekniko eta Basogintzako Injineru Teknikoak, Biologia Fakultateak...
- ❑ Murgiako Bigarren Mailako Irakaskuntza Institututik (BMI) etorritako ikasleak.
- ❑ Landa-inguruneke beste populazioaren bat.
- ❑ Hiri-inguruneke etorritako titular potentzialak.

Guztira, multzo hauetako batzuen estimazioa burutzeko zailtasunak kontuan hartuta, Egitasmoarako 1.500 bat pertsonak osaturiko populazio potentzialari buruz hitz egin daiteke.

Egitasmoaren helburu espezifikoa

Estimatu den populazio potentzial honetatik, Egitasmoak hurrengo 10 urteotan 1.000 gazte sektorean sartzeko asmoa du (2005-2014).

V. EGITASMOAREN EKINTZAK

Egitasmoaren *ekintzak* zenbait *neurri* zehatzetan (20 neurri) antolatzen dira; *ildo* ezberdinetan multzokatuak, gazteak euskal laborantza-esparruan sar daitezen arazoari aurre egiteko esparru-eremu zabala bildu gura dute neurri horiek. Hauexek dira ekintza-ildo nagusiak:

Aholkularitza eta monitorizazioa

Ildo honetatik, sektorean Egitasmo honen bidez sartzeko gogo duen edozein gazteren harrera eta helbideratze prozesua egituratzeko asmoa dago. Prozesuak *sarrera progresibo* filosofia du ardatz, eta horrek nekazari gaztearen jarraipen hurbila eskatzen du epe jakin batean.

Ildo honetan integratutako neurriek, Egitasmoaren enbor-neurriek alegia, nekazari gazteari zuzendutako Bulego espezifikoko batean integratzen den ekintza-sorta bat abian jartzen dute.

Horretarako, jadanik martxan dauden Eskualdeko Nekazaritza Bulegoak (ENBak) deritzogun horietan “Nekazari Gaztearen Bulegoa” sortuko da, zentralizaturik gabeko zerbitzu arituko delarik. Une berean, bai ENB hauek bai gainontzeko sektore-erakundeeek –ADR deritzonek, Nekazaritza-Sindikatuak, Nekazaritza-Eskolek, Kudeaketa-Guneak eta abarrek- sartzeko berrien eskaerarako sarbidetzat jardungo dute, Egitasmoak sektorean duen barneratzea ahalik eta gehien ehunduz.

Dena den, eskema guztia osatzeko asmoz Koordinazio-Zerbitzua dago, Eusko Jaurlaritzaren DAPen barnean, Nekazari Gaztearen Bulegoaren ekintza ezberdinen koordinazio egokia ziurtatuko duena. Hala, sektorean sartzeko prozesuari koherentzia emango zaio.

1. Nekazari Gaztearen Bulegoa

Aholkularitza integrala ahalbidetuko duen administrazio-zerbitzu bat abian jartzean datza ekimen hau, eta hala badagokio, Egitasmo honen bitartez EAEn landa-sektorean sartu nahiko lukeen edozein gazteri jarraitzean.

Mota honetako zerbitzu bat martxan jartzeko arrazoen artean, lehenengo eta behin honako hau aipatu beharra dago: nekazari gazteren batek lan honetan sartu gura izango balu, sektoreak bere aldetik interesatu horrek topa dezakeen informazio guztia eskuratzeko erreferentzia garbia eskaini ahal izatea. Gaur egun ez dago halakorik.

Era berean, nekazari gazteekin lanean aritutako Mendikoik edo Kudeaketa-Guneak izandako esperientziatik ateratako ondorioek erakutsi bezala, sartzeko berri horren arrakasta ziurtatzeko orduan komeni da *instalazio progresibo* bat egitea.

Neurri honen bidez martxan jarri nahi dugun *instalazio progresibo* kontzeptu berria, beste aldetik, gazteak azaldutako proiektuaren bideragarritasunean eta proiektu horri aurre egiteko gazteak berak duen gaitasunean oinarriturik dago. Nekazari Gaztearen Bulegoaren jardueran, hain zuzen ere, bideragarritasunaren azterketan, gaitasunaren balioztatzean eta, hala izatekotan, aurrekoaren lorpenean kokatzen da.

ENBak, sektoretik hurbilago dauden eta sarrera errazago ematen duten administrazio-erakundeak diren aldetik, EAEko eskualde bakoitzerako Nekazari Gaztearen Bulego gisa itxuratuko dira.

ENB bakoitzak Gazte Egitasmoaren arduradun zehatz bat izango du (*bulegoko arduraduna*). Arduradun horrek Egitasmo hau ederki asko ezagutu beharko du, baita bertan aurreikusitako tresnei dagokienez ere, eta Gaztearen Bulegoari egotzitako funtzioak onartzeko gai beharko du izan.

Edonola ere, euskal laborantza-sektoreari lotutako edozein erakunde, bere aldetik, gazteak bereganatzeko Gune-Sarearen partaide izango da. Sare hori dela medio, Egitasmo honetan interesa eduki lezakeen gaztea bere eskualdeko Gaztearen Bulegora bideratuta izango litzateke, edo proiektua jartzeko erabaki duen eskualdeko Bulegora.

Bulegoaren funtzioak

➤ Informazio eta aholkularitza.

Gazte batek sektorean sartzeko orduan bete beharreko urratsen gainean, aldiz, esan behar da bulegoan horri buruzko informazio guztia eskainiko dela. Beraz, administrazio nahiz prozedura arloetako informazioa (Egitasmoak dituen neurriak, instalazio progresibo ereduak, proiektu bideragarritasun-trebakuntza premiak, eskuragarri dauden laguntzak, zein gunetara jo...) nahiz teknika eta sektoreen gaineko informazioa eskainiko zaio gazteari, interesatua ondo koka dadin aurrera atera gura duen proiektuan.

➤ Proiektuaren ebaluazio eta monitorizazioa.

Hau da proiektu bat bideratzeko funtsezko fasea, gaztea sektorean sartzeko ala ez erabatekoa izango dena. Fase honetan, Eusko Jaurlaritzako Nekazari Gaztearen Koordinazio-Zerbitzuarekiko lankidetzat estua behar izango da (Ikusi 2. neurria, beste zonalde batzuetan antzeko ezaugarriak dituzten proiektuen gaineko itaunak, lurralde-oinarriko ziurtatzea, balizko monitorizazioa...).

Laguntza publikoa duen sartze-eskema, proiektuaren bideragarritasunean eta gaztearen gaitasunean oinarrituko da. Azken batean, Gaztearen Bulegoak premisa bakoitza betetzen den ala ez egiaztatu beharko du (egiaztatzea), eta horretarako egokia den egitura batean oinarritu beharko da, bai propioa bai sektorearen beste erakunde batzuekin koordinatua (Kudeaketa-Guneak, Mendikoi, Lurren Bitartekotza Gunea...).

Fase honen iraupen eta konplexutasuna, berriz, aurkeztuko diren proiektuen heldutasun eta aukeren arabera izango dira. Gazteren batek oso landuta ez dagoen proiektu bat aurkeztuko balu, edo gazte horri aholkurik eman behar izango balitz (konplexutasunagatik edo gaztearen beraren jakintza urriagatik), Bulegotik monitore bat eskainiko litzaiotke gazteari, proiektua garatzeko orduan elkarrekin lan egiteko.

Monitorea eskaintzeko orduan, interesatuak bat etorri behar du erabaki horrekin, eta monitorea gazteak bereganatzeko Gune-Sarearen edozein erakunderen partaide izan

daiteke (ENBa bera, Nekazaritza-Eskoletako irakasleak, sindikatu-teknikariak, Kudeaketa-Guneak, ADR direlakoak...). Behin modu egokian landutako eta garatutako proiektu bat aurkeztuta (Koordinazio-zerbitzuaren oniritziarekin), Bulegoak proiektua ebaluatzeko txosten tekniko bat eskatu beharko du (Teknika eta Ekonomia Kudeaketa-Gunea, edo kasu bakoitzean aurkezten den proiektu motan aditua den teknikaria), baita gazteak proiektua aurrera ateratzeko duen gaitasuna ebaluatu ere. Ahalmen edo gaitasuna lortzekotan, gaztea jadanik azaltzen diren trebakuntza-ikastaroetara bideratuko da.

➤ Egiaztapena.

Gazteak zein proiektuak aldeko txostenak edukiz gero, proiektua azaldu den ENBri dagokion lurraldeko Foru Aldundiko organo-arduradunak proiektu horren bideragarritasun-ebazpena (egiaztatzea) igorri beharko du. Hortik abiatuz, gaztea jarraipen tutorizatuan sartuko litzateke, eta Egitasmoan aurreikusi diren instalazio-laguntzen onuraduna izango litzateke.

➤ Jarraipen tutorizatua.

Bulegoaren arduradunak proiektu horretarako tutore bat hautatuko du (3 urte), eta baliteke proiektuaren garapena zuzendu zuen monitoreak bera izatea. Beste aldetik, Bulegoaren arduradunak proiektuaren bilakaeraren segimendu iraunkorra ere burutu beharko du, beti ere koordinazio-zerbitzua jakinaren gainean jarritz (prozedura-gidaliburua). Horrez gain, Koordinazio-Zerbitzuarekin batera bukaerako txosten bat igorriko du baimena bukatu ostean, bertan bai errentagarritasuna bai jasangarritasuna (ekonomia nahiz ingurugiro arloan) esparruetan proiektuak duen sendotze-maila ebaluatuz.

Nekazari Gaztearen Bulegoaren ezarpena

Foru Aldundi bakoitzak, gainera, ENB deritzogunek Gaztearen Bulegotzat hartu dituzten funtzioak bete ditzaten beharrezkoa den teknika eta administrazio antolaketa egituratuko du, zeinek bere komenentziari begiratuta. Hori hala izan dadin, bakoitzak bere prozedura-eskuliburua burutuko du. Eskuliburu hori, bestetik, Koordinazio-Zerbitzuak Bulegoekiko harremanetarako ezarri duen beste eskuliburuarekin ere bateratu ahal izango da.

- Egiaztatze funtzioari helduz, Aldundiek orok funtzio horren azken erantzukizun edo zeregina ezarriko dute, administrazio eta hierarkia prozedurekin adostasunean. Prozesu hau prozedura-eskuliburuan ere sartuko da.
- Zerbitzu hau martxan jarri aurretik, Gaztearen Koordinazio-Zerbitzuak badu betebeharrak bat, hau da, Egitasmoa modu egokian ezagutzeko eta kudeatzeko beharrezkoak diren trebakuntza eta informazioa inplementatu Gaztearen Bulego bakoitzaren arduradunei –edo egitura arduradunei–.

Foru Aldundiek euren ENBetarako aurreikusten dituzten ohiko aurrekontuen barruan sartuko da neurri honetarako gastuaren aurrekontua ere (batik bat 1. eta 2. atalak). Dena den, baliteke Egitasmo honek Gaztearen Bulegoari egotzi egin dizkion funtzioak abian jartzeak, beharbada, finantza, ekipamendu edo giza-baliabide berriak sartu beharra ekartzea.

2. Nekazari Gaztearen Koordinazio-Zerbitzua

Gaztearen Bulegorako aurreikusi den eskema deszentralizatutik abiatuta, Egitasmoak bere koherentzia mantentzen dezan eta beste sektore-politika batzuekin uztar dadin, gaztea sektorerara hurbildu eta bertan sartzeko prozesurako Koordinazio-Zerbitzu bat sortu beharra dago.

Zerbitzu honen funtsezko ardura, beraz, Egitasmoaren neurrien koordinazio-lana izango da. Horretaz gainera, EAEko Gaztearen Bulegoei babes eta aholkularitza emateaz ere arduratuko da, eta orokorrean esanda, Egitasmoan aurrerikusi diren helburuen eremu horretan gazteak biltzeko eskemaren funtzionamendua egokia izateaz. Zerbitzu honek izango litzukeen funtzioak honakoak dira, besteak beste:

- Neurri eta laguntzetan azal litezkeen berrikuntzen berri ematea Bulegoei, baita Egitasmoaren web orrialde bat mantentzea ere.
- Proiektuen gaineko edo kokatze-lehentasuna duten zonaldeen gaineko aholkularitza-gidaliburuak egitea aldi-aldi.
- Lurren bitartekotzarako Gunearekiko ekintzak koordinatzea (ikus ezazue 11. neurria), eta Gaztearen Bulegoei ekintza horien berri ematea.
- Proiektuei, izan litezkeen monitoreei, hainbat proiektutan adituak diren teknikariei, kanpo-erreferentziei eta abarri buruzko dokumentu-baseak ezartzea.
- Sartze-proiektu ezberdinen mihiztadura orokorra ziurtatzea, bikoiztasunak ekidinez eta sinergiak aprobetxatuz. Hori bete dadin, proiektuaren ebaluazio eta monitorizazio fasean parte hartu behar izango du, gazteari aholkuak emanaz, eta hala behar izatekotan, proiektuaren monitoreari ere bai.
- ENB jakin baten eragin-eremuan zehazki kokatzen ez diren proiektuak bideratzea.
- Monitoreak nahiz tutoreak hautatzeko orduan laguntza ematea Bulegoei, gauza bera eginez proiektuen egiaztapenetan, hala eskatu izanez gero.
- Proiektuen hiru urteko tutoretza/jarraipena amaitu ondoren, euren ebaluazio bateratua onartzea.

Mendikoiren egiturek Koordinazio-Zerbitzua bere gain hartuko dute, eta Zerbitzuari emandako funtzioak onartzeko prozedura-eskuliburu bat ezarri beharko da. Zerbitzu hau martxan jartzeak Mendikoiren urteko ohiko gastua handitzea ekarriko du, 250.000 eurotan balioztatua (egokituriko pertsonala, laguntza-monitoreak eta ekipamenduak).

Lehenengo instalaziorako laguntza-neurriak

Gazteari laguntza ekonomikoa ekarriko lioketen –zuzenean zein zeharka- neurri guztiak ekintza-ildo honen barruan kokatuko lirateke, gazteak bere lehenengo instalazioa sor dezan. Atal honetan proposaturiko neurri guztiak, beren aldetik, elkarrekin bateragarriak dira.

3. Nekazari Gaztearen Estatutua

Jadanik aipatu dugu nekazaritza-alorra EAEn jasaten ari den zaharkitzea. Izan ere, errealitate horretatik abiatuz, eta NBP berriak ekarriko duen eszenatokia aintzat hartuta (izan ere, 2005etik aurrera gazteek Europako Batasuneko laguntzak jasotzeko gero eta aukera gutxiago izango dute), nekazari gazteen aldeko diskriminazio positiboa arautzeko esparru propioa garatzea premiazkotzat jotzen da, bide batez belaunaldi-ordezkatza ere sustatuz.

Zentzu honetan, DAP delakoak Nekazaritza-Politika Legearen aurreproiektu-zirriborro bat burutzen dihardu, eta kasu honetan Nekazari Gaztearen Estatutuari eskainitako atal berezi bat tartekatuko du.

Aipatu Estatutu horretan, hain zuzen ere, nekazari gazteak bete behar dituen baldintzak arautuko dira. Nekazari gazteen aldeko *diskriminazio positibo printzipioa* ere ezarriko da, bai NBP laguntzei dagokienez, bai NBP berrian sortuko diren eskubide-erreserbetarako sarbideari dagokienez, baita laguntza propio eta sektore egitasmo espezifikoiei egokituz ere. Laguntza-mailetan baremoak eta gradienteak finkatuko dira, politika aktiboei lotutako irizpide ezberdinen arabera.

Irizpide hauen artean, honakoak aipa daitezke adibidetzat:

- Trebakuntza-maila
- Titularitatea
- Laborantza-jardueran emandako ardura
- Ustategia kokatzen den zonalde mota.
- Ustategiaren erakunde juridikoa
- Elkarketa-maila
- Inbertsio-bolumena
- Estentsifikazioa eta ingurune-jasangarritasuna
- Kalitate edota jatorri egiaztatzeetan edo izendapenetan azaltzea

➤ ...

Halaber, eremu honen barruan burutuko den beste ekintza bat honakoa da: ustategia nekazari gazteen eskura uzteko transmisio partzial edo osorako prozesuan dauden eta gaur egun lanean diharduten titularren kasuan, haien aldeko laguntzen lehentasunerako bideak arautuko dira; Era berean, kudeaketa misto prozesuak ere arautu egingo dira.

4. Kapital/hazia laguntza

Aurretik aztertutako azpisektore-egoerari helduz, beharrezkoak diren inbertsio handiek jardueran sartzeko oztopo gaitza dakartela ikus daiteke. Beste alde batetik, gaur egun Foru Aldundietan agertzen diren laguntzak (bere gehienezko zenbatekoan NBP delakoaren eremuak mugatuak izanik) osatu beharra ere nabaria da. Hau guztia dela eta, Egitasmo honek nekazari gazteak lanbidean sartzeko laguntza berri bat azaldu nahi du, *Kapital/hazi laguntza* deritzoguna, bere ezaugarri nagusiak ondoren garatuko ditugularik:

Onuradunak

Nekazari gazteak (40 urtetik beherakoak), edo nortasun juridikoa duen elkarte-erakunde batean elkarturik dauden gazte-multzoak, euren proiektua eta gaitasuna Nekazari Gaztearen Bulegoak egiaztatua den bitartean. Proiektu batek eskatzen duen benetako arreta edo ardura albo batean utzirik, Gaztearen Bulegoak, egiaztatze-prozesuaren bitartean, proiektu bakoitzean dirulaguntza jaso lezaketen batezbesteko U.L.U.ak ebaluatuko ditu, eta U.L.U.en frakzioak ere izan daitezke.

Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren zenbatekoa 10.000 euro/U.L.U. eta 25.000 euro/U.L.U. bitartekoa izango da, ondoko irizpideen arabera:

- Ustategia dagoen lekuaren orografia (zenbat eta aldapa handiagoak, orduan eta zenbateko handiagoa).
- Proiektuak behar duen diru-sarrera bolumena (zenbat eta sarrera handiagoa, gero eta zenbateko handiagoa).
- Proiektuaren kokatze-lekuaren isolamendu-maila (zenbat eta isolamendu handiagoa, orduan eta zenbateko handiagoa).
- Proiektuaren asoziazionismo edo elkarketa maila (Komunitate-Ustategi Kooperatibek diskriminazio positibo handiagoa izango dute).

Irizpide hauek haztatzeko orduan, neurria erregulatuko duen Dekretu berezi baten bidez egingo da. Bestetik, Administrazioak ezartzen dituen politika aktiboen arabera, goian aipaturikoak ez beste irizpide batzuk sar litezke.

Ordainketa-prozedura

Nekazari Gaztearen Bulegoak egiaztapena eman bezain laster, laguntzaren proiektu onuradunak dirulaguntza jasoko duen zenbateko osoaren 2/3ak jasoko ditu. Gainontzeko herenari

dagokionez, berriz, monitorizazio fasearen hiru urteko epea amaitutakoan jasoko du, beti ere urte horren amaieran azaltzen den marjina gordina –proiektuaren tutoreak egiaztaturik- aurretik ezarritako minimo batetik gora dagoen bitartean. Minimo hori ezin izango da inola ere 6 EDU/U.L.U.tik beherakoa izan (7.200 euro/U.L.U. 2003. urterako).

Hirugarren urtean proiektuak aldeztatik ezarri den marjina gordin minimoa lortu ezean, hasierako laguntza itzultzea eskatuko da.

Finantzaketa

Laguntzaren giltzadura, DAPen ohiko aurrekontuaren arabera burutuko da, kasu honetan fondo galdurako estatu-laguntza izanez (Nekazaritzarako estatu-laguntzen erregimen bakun berriak 25.000 euro bitarteko emaria egiteko aukera ematen du, gazteak sar daitezzen, Bruselan berririk eman behar izan barik).

Dena den, Eusko Jaurlaritzak laguntzak emateko bestelako esleipen-formula batzuk ezarri ahal izango ditu, Kapital Arrisku Fondoaren bitartez, Gazte Plan II delakoaren 1.4.6. ekintzak aurrez ikusi duen bezala.

Balioztatutako urteko gastuaren aurrekontua

Urteko batezbesteko gastuaren aurrekontu-aurreikuspena, 2.000.000 eurotan balioztatua da (hau da, 100 U.L.U./ urterako, U.L.U. bakoitzeko 20.000 euroko batezbestekoan).

5. NPB/PAC laguntzak lehendabiziko instalaziorako

NBP laguntzak, bai lehenengo instalaziorako zuzenak (30.000 eurora bitartekoak azken Erreformarekin) bai inbertsioetarako hobaria interesetan, Foru Aldundiek kudeatuak eta aldi berean finantzatuak dira EAEn.

Laguntza Foru Dekretuetan, esate baterako, lehendabiziko instalazioa jartzeko dauden baldintzak eta arauketak bilduta daude. Laguntzen euren eragina hobea izan dadin, badaude heldu beharreko alderdi batzuk. Horrela, Foru Aldundi bakoitzak eskatutako baldintzak aldatu egiten dira, nabardura ezberdinekin bada ere. Dirulaguntzak jasotako zenbatekoak ere ez dira berdinak lurralde guztietan; Onuradunari nekazaritza-jarduerarako lanaldi osoa eskatzen zaio, baina normalean jarduera horrek diru-sarrerak sortuko baditu, aurretik gazteak heldutasun prozesu bat izan beharko du; inbertsio minimo batzuk ere eskatzen dira laguntza eskatu ahal izateko, eta horrek bazter batean uzten ditu interesgarriak izan daitezkeen ekimen txiki batzuk; Onuraduna GSNEB (REASS) barruan azaltzea eskatzen da, baina kide izate horrek zera esan nahi du, nekazaritza-sektorean jadanik jardueraren bat betetzen ari dela; Orokorrean esanda, gaurko laguntzen joera nagusiak ustiategi barneko belaunaldi-ordezkatzarantz jotzen du, Egitasmo honek sustatu gura duen instalazio progresibo kontzepturantz baino.

Zentzu honetan, kontuan hartu behar da aurreikusitako Nekazaritza-Politika Legearen eremuan (ikus 3. neurria) DAPek baduela Nekazari Gaztearen Estatutu bati ekiteko asmoa; Arestian

aipatu legez, Estatutu horretan nekazari gazteei eman beharreko edozein laguntzarako oinarritzko irizpideak eta baremoak erregulatuko dira, EAE mailako ikuspegi integratu batetik. Gauzak horrela, aurreneko instalaziorako laguntzak arautzen dituzten Foru Dekretuen aldakuntza egitea ezinbestekotzat hartu da, Dekretuek Legean ezarritako orientabideak irizpide komunekin jaso ditzaten, ETA Gaztearen Bulegoen bitartez sartzen diren gazteen laguntzek (laguntza irekiak dira) lehentasuna izan dezaten.

Halaber, laguntza jasotzeko gai diren zenbateko maximoetan NBPK sartutako aldaketei dagokienez, aldakuntza honek ere gehitu beharko ditu.

Pentsatu behar da Foru Aldundiek instalazio berrietarako balioztatu duten urteko gastuaren aurrekontua handitu beharko dela, gaurko aurrekontuen aldean (*Foru Aldundi bakoitzak erabaki beharko du*). Horrela, Egitasmo honek sortuko lituzkeen eskari ugariagoei –aurreikusteko modukoa da, behintzat, hori gertatzea- erantzuna emango litzaieke.

6. Interes baxuko Kreditu espezifikoak

Lehenengo instalaziorako proiektuak martxan jartzeak, jakina, inbertsio handiak eskatzen ditu azpisektore guztietan, amortizaziorako epe luzeekin eta guzti. Egoera honetan, instalatu nahi duen gazteak oso finantzaketa-premia gorriak izango ditu, aurreneko instalaziorako laguntzaz gaindi doazenak, eta nekez egin ahal izango die aurre premiei. Zer esanik ez dago sektoretik kanpo datozen gazteen kasuan, zeren eta beharrezkoa den lurzorua eskuratze hutsak, gaur egun, ordainketa handia egitea eskatzen baitu.

Horregatik, Egitasmo honek lortu nahi duena hauxe da: gazte hauek kanpo-finantzaketa ahalik eta egoera onean lortu ahal izatea.

Laguntzaren ezaugarriak

Une hauetan, Lurralde Historiko bakoitzaren eremuan badaude Foru Aldundien eta Finantza-erakundeen arteko hitzarmen zehatzak, interes baxuko kredituak (2003an zehar % 1 inguru). Normalean 15 urtetik beherako epeak izan ohi dira.

Dena dela, helburu hauetarako maileguak epe luzeagora eskatuko dira normalean; Egitasmoaren xedeei erreparatuz, positiboa deritzogu horri, gaztea sektorearekin lotu egiten duelako eta gazteak konpromisoa hartzen duelako. Ildo honetan, Egitasmoak kredituak itzultzeko epe maximoa luzatzea proposatzen du jadanik dauden hitzarmenetan, 25-30 urteko epeetara zabalduz. Are gehiago, urtebeteko kreditu gabetia izateko aukera ere zabaldu nahi dugu.

Beste alde batetik, neurri honek badauka beste ezaugarri bat: Egitasmoaren bidez jardueran sartu nahiko lukeen gazteren bati, esate baterako, kreditua ukatu egingo baliote (material-berme ezagatik), DAP maileguaren abal-emailea izango litzateke, edo hitzarturiko elkarrenganako bermea luketen elkarteetan (Oñarri antzera) aurreko biremailea, jadanik abal-emaile aritzen diren elkarteak hain zuzen.

Horretarako zera proposatzen da, interes baxuko finantzaketa honetan parte hartu nahi duen gazteak, bere proiektuaren garapenaren kontrol fiskalizatzailea onartu beharko die Kudeaketa-Guneei edo bestelako erakundeei, euskal nekazaritza-Administrazioaren tutoretzapean, laugarren urtetik hasita eta kredituaren epea bukatu bitartean.

Esan dugun bezala, euskal Nekazaritza-Administrazioek hitzarmen batzuk adostuko dituzte zenbait finantza-erakunderekin. Erakunde horien kasuan, neurriaren gazte onuradunek 120.000 eurora bitarteko kredituak lortu ahal izango dituzte, aldez aurretik adostu beharreko interes tipo maximo batean, merkatuko unean-uneke baldintza orokorren azpitik eta gehienez 25-30 urte bitarteko amortizazio epe maximoan.

Baliteke, DAP abal-emaile aritu izana eta onuradunak kredituaren betebeharrei uko egitea. Halakorik gertatuko balitz, oraindik ordaintzeko leudekeen lehenengo instalaziorako laguntzak kenduko lituzke Sail honek, eta dagoeneko ordaindutako diruen erreklamazioa egin ere bai.

Balioztatutako urteko gastuaren aurrekontua

Printzipioz, neurri honek ez du zertan Foru Aldundien ohiko gastutik gorako ordainketarik ekarri. Edonola ere, interes-hobariak direla eta, gaur egungo zenbatekoen igoera bat aurreikusi beharko da, Egitasmoak sortutako laguntza-eskaeren igoeraren arabera. DAPek, bere aldetik, urteko funts-hornidura bat esleitu beharko du, abal betearazpen posibleak onartzeko.

7. Sektorera hurbiltzeko beka

Sektoretik kanpo begiratuta, nekazaritza-esparruari buruzko ezagutza eskasa dago, eta enpresa-jardueratzat eskaintzen dituen aukerak ere ezezagunak dira. Honek guztiak, sektorean ekimen berririk sar ez dadin galga-lana betetzen du. Hori hala dela, gazteek nekazaritza-sektorerako aurreneko hurbilketa bat egin dezaten pizgarriren baten beharra planteatzen da.

Zentzu honetan jarraituz, babeserako laguntza bat ezartzeko asmoa dago. Horrela, gazteak bere kabuz sektore honekin duen interesa ebaluatu ahal izango luke, Euskal Herriko ustiategi aktibo batean ordaindutako praktikak eginez.

Laguntza horrek txertatze-beka baten itxura hartuko du, sei hileko epean zehar. Tarte horretan, onuradunak laguntza-lanak beteko ditu, ustiategiaren titularraren gidaritzapean.

Onuradunak

Nekazaritza-mailan trebakuntza maila minimoa adierazten duten gazteak, Mendikoiren menpeko edozein Trebakuntza-Gunek egiaztatua eta eurek erabakitako baldintzetan.

Laguntzaren ezaugarriak

3.600 euroko zenbatekoa duen hiru hileko beka (600 euro hilean). Foru Aldundiko Nekazaritza Sailek beka emango dute, urteko laguntzen Foru Dekretuetan sartu beharko direlarik. (GFAak 2002tik aurrera)

Neurri honetarako balioztatu den urteko aurrekontu maximoa, FA bakoitzeko 60.000 eurokoa da (180.000 euro urtean).

8. Laguntza fiskalak

EAEren hiru lurralde historikoetan –autonomia fiskala dute-, nekazaritzarekin harremana duten neurri fiskalei buruzko Foru Arau espezifiko dago (AFaren ekainaren 9ko 17/97 Foru Agindua; GFaren azaroaren 21eko 109/95 Foru Dekretua; BFaren urtarrilaren 22ko 1/97 Foru Agindua). Modu berean, arau hauek guztiek nekazari gazteei aplikatu dakizkiokeen onura fiskalen gaineko izenburu espezifiko bat jasotzen dute.

Araudia aztertuz gero, ustiategi baten transmisioa edo eskuratzea kargatzen duen zergaren salbuespena hiru lurraldeetan gertatzen dela ikus daiteke. Bestetik, gaztearen instalazioarekin lotutako Ekintza Juridiko Dokumentatuen kargari dagokionez ere salbuespena dago.

Alabaina, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren estimazio objektibo metodoa aplikatuz gero, jardueraren etekin garbiari dagozkion salbuespenak azaltzen zaizkigu, eta alde horretan zerga hori tratatzeko ezberdintasunak ikus daitezke. Bizkaian eta Gipuzkoan, esaterako, interesatua lehentasunezko ustiategi baten titular (lehendabiziko instalazioa izanik) jarri eta ondorengo bost urteotako zergapetze-epeetan zehar % 25eko salbuespen finkoa aplikatuko zaio; Araban, berriz, epe horretan bertan beheranzko salbuespena aplikatuko da, aurreneko urtean % 50 izanik eta bosgarren urtean % 30ekoa delarik.

Egitasmo honek tratamendu koordinatuagoa eta progresistagoa proposatzen du, gaztea sektorean sartzeko errazteko asmoz. Horretarako, aldaketa-proposamen bat azaltzen dugu, Foru Ogasunekin negoziatu beharrekoa. Hona hemen hainbat foru araudiren aldaketa horiek zertan dautzan:

- ❑ Orain arte, onuradunak bete behar zuen baldintzetako bat, *lehentasunezko ustiategi* baten titularitaterako sarrera zen. Guk, ustiategi baterako sarbidea proposatu nahi dugu baldintzatzat, bestelako nabardurarik barik.
- ❑ Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren estimazio objektibo metodoa aplikatuz gero, jardueraren etekin garbiari dagokion salbuespena aplikatuko litzateke, hiru lurraldeetan berbera dela: Lehendabiziko hiru urteetan % 50ekoa, % 40koa laugarren urtean eta % 30ekoa bosgarren urtean.
- ❑ Baliteke, zenbait gazte sektorean sartzeko orduan, izaera juridikoa duen elkarterakunderen baten bitartez egin izana. Halako kasuetan, ahalik eta salbuespen handiena azalduko litzateke Elkarte-Zergan.

Onuradunak

Egitasmo honetan aurreikusitako prozesuaren bidez sektorean sar litekeen edozein gazte.

Balioztatutako urteko gastuaren aurrekontua

Neurri honek ez dakar gastu-ordainketarik. Aurrekontu mailan duen eragin bakarra, kasu honetan, proposatzen den salbuespen-gehikuntzak bilketa fiskalean sortuko duen urritzean datza. Edozein kasutan, esangura eskaseko eragina delako ustean gaude.

9. Belaunaldi-ordezkatza sustatzeko laguntzak (prejub, fond pen, fórm gest mix)

Ildo honetatik, Egitasmoak ustiategi-titular zaharren irteera sustatzeko neurriak aztertzen ditu; Horrela, belaunaldi-ordezkatzarako aukera eman eta titular gazteak ustiategietan sar daitezen bidea eskainiko da.

Zentzu honetan jarraituz, NBP eremuaren barruan EAEn erretiro aurreraturako laguntzak martxan daude behin honezkero, eragin esanguratsuegirik izan ez duten arren.

Egitasmoak ez dauka laguntza honen aldaketa helburutzat. Hala ere, DAPen aldetik beste neurri berri bat sortzea proposatzen da, lortu nahi den xedea hein handiago batean indartu eta bultzatzeko.

Hori dela eta, nekazariak jarduera bertan behera uzteko orduan topatzen duten oztoporik nagusietako bat, hain zuzen ere, erretiratzeko orduan GSNEBtik (REASS) jasotzen duten errenta eskasa da. Egoera honetan, ematen du egokia izango litzatekeela nekazariak zehaztugabeko ekarpenetako pentsio-planak burutzera bultzatzea, erretiroaren orduan euren errenta osa dezaten.

Neurri honetatik (titularrak jarduera uzteko laguntza ikuspegitik ulertua), titularraren eta gaztearen arteko kudeaketa mistorako edo trantsiziorako formula batzuk jarri nahi dira osagarritzat. Hala, ustiategi hartzailea bultzatu nahirik, bai 7. Neurria aplikatzeko orduan (sektorerara hurbiltzeko bekak) bai bestelako formula mistoetan (sendi arteko elkartea, biziarteko usufruktuak...), ustiategi hartzaileak 9. Neurri honetan aurrez ikusitako laguntza kontuan diskriminazio positiboa izango du.

Laguntzaren ezaugarriak

DAPek, jarduera nagusizat nekazaritza duten nekazariak laguntzak eman ahal izango dizkie, beti ere laborantza-ustiategi baten titularrak direnak, zehaztugabeko ekarpenetako pentsio-planetan parte hartzen dutenak, EAEn Administrazioarekin kasu honi dagokion Lankidetzaren Hitzarmena sinatu duten finantza-erakundeek sustatutako planak diren bitartean.

DAPek beste aldetik, diru-laguntzak jasotzeko gai izan daitezkeen pentsio-planen ezaugarriak eta arriskuak ezarriko ditu. Edozein kasutan, Egitasmoaren eskubideak kobratu ahal izateko, antzintasuna gorde beharko da bertan, urteroko eskudiru-emariekin, gutxienez bost urteko antzintasuna hain zuzen ere.

Onuradunak

Laguntzak eskatu gura dituzten EAeko ustiategi-titularrek, eskaria egiteko orduan, honako baldintzak bete behar dituzte:

- ❑ Nekazaritza-jardueratik eratorritako diru-sarrerak dituen pertsona fisikoa izatea.
- ❑ Nor bere kontura altan egotea GSNEBn (REASS), edo Nor bere Konturako Langileen Erregimen Berezian (edo Autonomoak izan) altan egotea, nekazaritza-jardueraren arabera, eta aldez aurretik Gizarte Segurantzari hainbat urtetako epea ordaindu izana; Horrela, 65 urte betetzean, gutxienez 15 urteko kotizazioa azaltzeko moduan egon beharko dira langileak.
- ❑ 40 urte bete izana eta 65 urtetik gorakoa ez izatea.
- ❑ Laguntzak pentsio-fondoaren ekarpenetan osorik sartzeko berba ematea.

Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzak urtero ordainduko dira, eta beren zenbatekoek eduki dezaketen muga maximoa, berriz, ondoren azaltzen direnen arteko txikiena izango da:

- ❑ Partaideak pentsio-fondoari eginiko ekarpenen zenbatekoa.
- ❑ Azken hiru urteetan Partaideak Pertsona Fisikoen Errentaren Gainera Zergan aitortutako nekazaritza errendimendu guztien batezbestekoaren % 7,5, inondik inora gaindituz 751,27 euroko muga.

7. neurrian (edo, Gaztearen Bulegoak bidalita, notario bidez egiaztaturiko kudeaketa misto formularen batean) sartutako gazte bat jasoko duten ustiategi hartzaileen titularrek, adibidez, gaztearekiko harremanak irauten duen bitartean aldez aurretik azaldu den laguntzaren gainera % 50eko igoera izango dute, gehienez 5 urteko epean.

Balioztatutako urteko gastuaren aurrekontua

Egiantan egindako urteko gastuari dagokionez, neurrian sartzen diren onuradunen kopuruaren arabera izango da, baita haiek egindako ekarpenen kopuruaren arabera ere. Edonola ere, DAPEk neurri honetarako 300.000 euro/urteko aurrekontu-partida maximoa finkatuko luke.

Lurra bereganatzeko aukera

EAEren lurraldea zeharo urbanizatua da, azpiegitura-kopuru handikoa. Horrez gainera, lurraldearen berezko erliebe menditsuak lurra erabiltzeko norgehiagoka handia sortzen du, lurzoru lauak, ordekatuak, eta ibar-hondokoak urriak baitira. Egoera honetan, *lurra baliabidea* izugarri eskasa da.

Gainerako beste erabilpen batzuen aldean, nekazaritza-jarduerak eta landa-erabilpenek haiekin lehiari egiteko oso tresna gutxi daukate, errentagarritasun eta merkatu baldintzetan behintzat: bizileku-erabilpenek, industriarakoek, azpiegitura mailakoek, besteak beste, errentagarritasun ekonomikoa lortzeko askoz ahalmen handiagoa dute.

Horregatik, eta nekazaritza-produkzioan *lurra baliabidea* guztiz funtsezko *inputa* dela kontuan hartuta, Administrazio publikoek lurzoru-merkatuan egindako esku-hartzea funtsezkoa da, nekazaritza-jardueretarako lur-eskuragarritasuna ziurtatuko bada.

Testuinguru honetan murgildurik, Egitasmo honek nekazaritza-lurzorua babesteko hainbat neurri planteatzen ditu; Bide batez, nekazariak oro har eta nekazari gazteek bereziki lurzorua eskura dezaten babesteko da.

10. Nekazaritza-baso SLPk (PTS) burututako ekintzak laborantza-zoruan

Nekazaritza-baso SLP, nekazaritza-sektorearen eskuetan dagoen lurralde-antolamendu tresna nagusia da. Bertatik, zenbait antolaketa-kategoria eta lurrraren erabilpenaren erregulazioa ezartzen dira, eta antolamenduaren gainontzeko tresnekin artikulaturik, nekazaritza arloko lurralde-antolamendua eta gainontzeko lurralde-antolamenduaren arteko lotura ziurtatuko dute.

Dokumentu honek “nekazaritzarako balio handia” duten zoruak mugatzen ditu; Zoru horiek mantentzea nahitaezkoa da, produkzio-helburuengatik ez ezik, berri ezin daitekeen balio handiko baliabide bat –potenzialtasun handieneko nekazaritza-zorua, alegia- babesteagatik ere.

SLPk gaur egun jadanik dauden kudeaketa-formulak planteatzen ditu; Borondatezko trukatzak, lur-sailen kontzentrazioa, zoruaren kudeaketan hobekuntzak sartzeko aukera ematen dutenak; Beste aldetik, badaude gaur egun oraindik azaltzen ez diren beste formula batzuk, Lurren Bitartekaritzarako Gunea adibidez, geroago garatuko direnak.

Halaber, Nekazaritza-baso SLPk beste ekintza bat burutzeko asmoa du: inpaktuak ebaluatzeko prozeduren barruan, kontuan hartzeko nekazaritza-aldagai batzuen zerrenda integratu, eta zuzenketa-neurriak ere bai. Hori guztia bat dator ikuspegi naturalista hutsaz gaindi doan inpaktu-kontzeptuarekin, gaur egungo administrazio-prozedurak zaildu edo bikoiztu barik.

Dena den, Nekazaritza-baso SLPren irizpideen lege-ezarpena, azken finean, behin betiko onarpenaren zain dago; Beraz, lurraldean zerikusia duten gainontzeko Administrazio eta Sailentzat aterako den uztardura ere gauza beraren zain dago. Hori dela eta, Dokumentu hau bideratzea da DAPen oinarritzko helburua, ezen beste alderdi batzuen artean nekazaritza-zoruen politikak sortzea (gaur egun ez daudenak) ahalbidetuko baitu. Beste alde batetik, beste Sektore-Sailetatik eta Hirigintza-politikatik etorritako antolamendu-dokumentuen aurrean, nekazaritzarako lurzoruen alde informatzeko aukera ere izango da.

11. Lurren Bitartekaritzarako Gunea

Aipatu den legez, EAEn nekazaritza-sektorean sartu nahi duen edozein gazte oso eszenatoki gaitza topatzen du; Kontuan har dezagun produkzio-jarduera honen funtsezko produkzio-faktorea lurra dela, eta faktore hori bereganatu ahal izateko zailtasun handiak daude, batzuetan ezinezkoa delarik. Izan ere, “lur” merkatua baina, “zoru” (edozein giza-jardueraren euskarri potentziala) merkatua da gaur egun daukaguna, eta merkatutik kanpo abiatutik ez dago faktore horretan sartu ahal izateko bide antolaturik. Arazo honen aurrean, botere publikoen esku-hartzea komenigarria eta beharrezkoa dela dirudi.

Ildo honetan, erakunde espezifiko bat martxan jartzea nahitaezkozat hartzen da: Lurren Bitartekaritzarako Gunea. Gune honek, egia esan, Egitasmo Gazte honen helburuez gaindi doan lan-eremua badu ere, bere oinarritzko elementuetako bat izatea espero da.

Lurren Bitartekaritzarako Gunearen oinarrizko zeregina, lurra eskatu duten nekazariei beharrezkoa duten lurzoru hori ematean datza, bai instalaziorako bai jarduera handitzeko.

Gune honek garatu beharreko funtziorik nabarmenenak honakoak lirateke:

- a) Nekazaritza-zoruen identifikazioa eta beren erabilpena, informazio guztia datu-baseetan eta geografia informazio sistemetan tinkatuz, kontsulta errazagoa izan dadin..
- b) Eskuragarri dagoen lurzoru publikoaren identifikazioa, eta lurra eskatutako nekazariak laborantza-zereginetarako erabili ahal izateko dauzkaten aukeren azterketa. Horrek, lurzoru hori bidegabeki duten Administrazioen arteko koordinazio-lan garrantzitsua eskatuko du.
- d) Partikularren arteko bitartekaritza-lanak, lurren salerosketa edo errenta gauzatzeko. Horien artean, nekazaritza-jardueran erretiro aurreratua hartzeagatik dagoen laguntza-erregimena erabili nahi duten pertsonak egindako operazioetan eginiko bitartekaritza bereziki garrantzitsua izango litzateke; Kontuan har dezagun, ildo honi eutsiz, laguntza-erregimen horretan lurra zuzenean hartzeko abagunea dagoela, ondoren Guneak berriro ere esleitu ditzan. Halaber, partikularren arteko salerosketa edota akura prozesuetan, baliteke Gunea bermatzaile aritzea.
- e) Lurra eskuratzea, erosketa nahiz akura direla medio, horren ondoren oinarrizko baliabide hau lortu nahi duten –ustiategiak dimentsionatzeko, esaterako- nekazari/abeltzainen artean nekazaritza-prezioetan banatzeko.
- f) Lurren iraulketa handiak behar dituzten azpiegitura garrantzitsuen (errepideak, trenbideak...), desjabetze-prozesuen, lur-betetzeen, eta oro har, zuzenki nahiz zeharka kalterik jasandako ustiategietan gerta litezkeen inpaktu esanguratsuen jarraipen espezifikoak.
- g) Lur gehiago behar duten *baserritarrentzako* informazio eta aholkularitza lana egitea, gauza bera eginez sektoretik kanpo dauden (nekazaritza-eskoletako ikasleak, langabetuak...) eta lanbide honetan sartu nahi duten pertsonen dagokienez.
- h) Nekazaritza-lurren estatistika mailako jarraipena bere lurralde-eremuan: ustiategi kopurua, errentagarritasun mailak, enplegu-sorketa. Honi loturik eta are garrantzitsuagoa oraindik, nekazaritza eta lurraldearen gaineko politika publikoetan aholkuak ematea.
- i) Epe ertainean, Gune honek beste produkzio-baliabide batzuetarako bitartekaritza-funtzioak har litzake (makineria, laguntza-eskubideak, kuotak...).

Era berean, Gune honek oso lotura estua beharko du izan Gaztearen Bulegoarekin.

Gunearen ezarpena

Ezaugarri hauetako Gune batek orain arte azaldutako funtzioak modu progresiboan bere gain hartuko ditu, beharrezko baliabideak eskuratu ahala. Baliteke etorkizuneko Nekazaritza-Politikaren Legeak Gune honi lege-euskarria eman ahal izatea.

Gunea IKTk kudeatua izango da; IKT, nekazaritza-sektoreari lotutako enpresa da eta proiektu hau garatu ahal izateko beharrezko baliabide teknikoak eta lurralde-informazioa dauka. Arkauten (Araba) duen egoitzan kokatuko da Enpresa.

Gunea benetan abian jartzeak, lan-metodologia bat burutzea eta lana egituratzeko ekintza-esparru ezberdinak (lan batzuetan azpi-kontratazioa egin liteke, edo beste erakunderen batek ardura hartzea) betetzeko nahitaezko pertsonalaz hornitzea eskatuko du.

Balioztatutako urteko gastuaren aurrekontua

Urteko hasiera aurrekontua 185.000 eurokoa (pertsonal teknikoa eta kanpo-laguntza) izango delako ustea dago. Arlo honetan aurrekontuak egiteak dituen zailtasunak aintzat hartuta, sei hiletan behin aurrekontuaren berrikuspenak egiteko aukera izan beharko litzateke. Finantzaketari dagokionez, IKTren ohiko aurrekontuaren esku geratuko litzateke.

12. Herri-baso edo mendietan eta lur komunaletan burututako ekintzak

Euskal Herrian herri edo auzo lurrak egotea, ohiko antolaketa sozio-ekonomikoaren adierazgarria da, mendi-ingurune batean berebizikoa dena. Gaur egun ere, herri-basoek hainbat lan edo jarduera burutzeko orduan funtsezkoak diren baliabideak hornitzen dituzte: baso-jarduerak, abeltzaintza-lanak eta, zenbait kasutan, nekazaritza-jarduerak. Era berean, erabilpen publiko, heziketa-erabilpenerako edo aisialdi-erabilpenerako sano espazio egokiak dira, ingurugiro nahiz landa-garapen inplikazioekin.

Euskal Udalerri gehienek izan dute, eta horietako askok gaur egun ere badute, herri-baso motako lurralde-ondare zabala. Halaber, EAEn partzuergo eta baso komunaltzat kudeatu diren azalera handiak daude.

Neurri honen bidez, Egitasmoak espazio hauen kudeaketaren tratamendua malgutu gura du, nekazari gazteek erabil ditzaten. Hori dela eta, Egitasmo honen helburu diren nekazari gazteei dagokienez, Udalerriek, partzuergoek edo mankomunitateek kudeatutako baso publikoen erabilpenak dituen zenbait araudi-betebeharrez aske uzteko asmoa dago. Hona hemen behar horietako batzuk:

- ❑ Instalazioaren aurreneko bost urteetan zehar, aprobetxamendu-kanonen ordainketari dagokion exentzio osoa (Baso edo lur komunalak kudeatzen dituzten erakundeentzat diren azpiegitura edo ekipamenduei dagokienez, honek ez du zertan horien erabilpenak sortuko lituzkeen zenbait ordainketa ukatzen).

- ❑ Espazio hauen erabilpena eskatzen duten nekazari gazteen kasuan, ez zaie eskatuko nekazaritza-jarduera, jarduera nagusia izatea, Egitasmoak bultzatu gura duen instalazio progresibo printzipioarekin bat etorri nahirik.
- ❑ Espazio publikoaren gaineko eskubideak dituen Udalerriari egokitzuz, ez da bizilekuden bora minimoko derrigortzerik eskatuko. Edozelan ere, instalazioa egiteko orduan gazteak Udalerrian erroldaturik azaldu behar du.
- ❑ Orokorrean esanda, instalazio-prozesuan legokeen nekazari gazteengana bueltatuz, espazio publiko hauen erabilpen eta gozamina modu negatiboan diskrimina dezakeen beste edozein xedapen.
- ❑ Herri-basoen eta baso komunalen erabilpena (lehenago aipatu diren egoera mesedegarrietan) hurbiltzen den gazteari helduz, nekazari hori sektorearekin lotuko dela ziurtatzeko mekanismoak ezarri.

Neurri honen inplementazioak, herri-basoak kudeatzeko orduan Udaletxeek eta Administrazio Batzarrek zenbait erabaki egoki hartzea eragingo du; beste aldetik, partzuergo nahiz mankomunitateak kudeatzen dituzten erakundeek, kasu honetan, espazio hauen kudeaketa eta antolamendu egitasmoak aldatu beharko dituzte.

Hori hala delarik, EUDELEk eta herri-basoen nahiz baso edo lur komunalen kudeaketan murgildurik dauden erakundeek, beren aldetik, ekintza hau inplementatzeko (ikus ezazu 13. neurria) beharrezko kontrol, koordinazio eta informazio prozedurak bere gain hartu beharko dituzte.

Horrez gain, etorkizuneko Nekazaritza-Politika Lege berrian arautze hauek batzeko asmoa dago.

Neurri honek ez dauka aurrekontu-gasturik, salbuespen batean izan ezik: proposatutako eskubide eta zergen ordainketaren libratzea dela eta, fondo publikoek libratze horiei lotutako kostuak bere gain hartuko balituzte izan ezik; dena den, ez lirateke handiak izango.

Landa-ingurunea eta Bizitza-kalitatea

Ekintza-ildo honek duen xede nagusia, nekazari gazte bat instalatzen den ustiategiaren (landa-ingurunea) inguruan sendi-kokaleku egokia bultzatzea da, sendi horrek estutasunik jasan ez dezan beharrezkoak diren ekipamendu eta zerbitzu guztiak izanik; horrekin batera, ongizate maila egokia eta, oro har, nekazaritza-jardueran jarraitzea erraztuko litzateke.

Horretarako, ildo honetatik asmo bi garatu nahi dira: alde batetik, landa-guneen udal-araudietan eragina izatea, nekazari gazteen sarrera eta bizitza-baldintzak erraztu nahirik. Beste aldetik, euskal landa-ingurunearen bizitza-kalitatea hobetuko duten ekipamendu eta zerbitzuen garapena sustatzea, nekazari gazteen kokatzearen eta jarraipenaren alde lan eginez.

13. Udal-sentsibilizazioa landa-arloan

Nekazari gazte batek instalatzeko asmoa duenean, udal araudi eta erregulazioetatik eratorritako hainbat oztopo eta arazo aurkitzen ditu; izan ere, araudi horiek ez diote arreta handiegirekin begiratzen ustiategi batean instalatu gura duen nekazari gaztearen problematikari.

lido honetan, adibide batzuk aipa litezke: etxebizitza baten eraikuntza, edo birgaitzea edo berritzea modu nabarian oztopatzen duten hirigintza-arauak edo beste mota bateko erregulazioak, Udal planteamendutik sortuak; Udalerriaren nekazaritza-zorua erabilpena mugatzen duten erregulazioak; bestelako interes batzuen alde (bizileku-erabilpena, industria-erabilpena, zerbitzuena...) jotzen duten baldintza teknikoek dakartzaten zailtasunak, jardueralizentziak emateko orduan -baita landa-izaera duten udalerrietan ere-; landa-lurak hirigintza-erabilpenetarako jotzea (Baso-nekazaritza arloko SLPk babestutako lurzorua kontuan hartu gabe). Halako kasuetan, ez dira kontuan izaten ez okupatu den luraren nekazaritzarako ezaugarriak ezta okupazio horrek Udalerriaren nekazaritza-erabilpenean sor dezakeen inpaktua ere; tokian tokiko feria eta merkatuetan postuak eskuratzeko araudia, eta abar.

Zentzu honetan, neurri honen bidez araudi hau guztia aldatu eta zuzentzeko nahia dago, lurralde eta hirigintza antolamenduan sartutako erakunde-agenteen benetako sentsibilizazioa lortuz. Hona hemen proposatzen diren ekintzak:

- Nekazaritza-Administrazioek, lurralde nahiz hirigintza esparruetako koordinazio-organoetan parte hartzea.

Irizpide eta xede komunak onartzea, eta Nekazaritza-Administrazio ezberdinen arteko koordinazioa, hirigintza eta antolamendu arauen bideratzean esku hartu ahal izateko (NNSS eta Egitasmo Orokorak, PLP deritzonak, SLP deritzonak...), hala nola Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendu Batzordean (EHLAB), Landaberrin eta abarretan.

- Gazte Plana II Erakundearteko Egitasmoan diseinatutako ekintzei dagokienez, landa-ingurunearen premiei buruzko koordinazio eta sentsibilizazioa.

DAP, Foru Aldundiak eta EUDEL, beren aldetik, *Gazte Plana II.* delakoaren Artezte Batzordearen eta Batzorde Teknikoaren barruan daude, gogotsu parte hartuz.

- EUDEL-en baitan, landa-lurraldearen antolamendu eta hirigintza arloetako Batzorde bat sortzea.

Hauexek izango lirateke Batzordearen funtzioak:

- Udaletxeei eta hirigintza esparruko araudi nahiz egitasmoak prestatzen dituzten beste erakundeei aholkularitza eskaintzea. Honekin, bai batzuk bai besteak landa eta nekazaritza arazoez jabetzen dira, batez ere nekazari gazteen instalazioari dagokionez.
- Nekazari gazte batek landa-ingurunean instalazio bat jartzeko orduan, baliteke instalazioari buruzko zenbait zalantza, kexa eta arazo izatea, araudi eta erregulazio gaien kasuan. Halakorik gertatzekotan, kontsulta-organoa izango litzateke honakoa.
- Gai hauetan inolako arazo edo trabarik aurkitzekotan, euskal nekazaritza-administrazioekiko koordinazio-organo arituko litzateke Batzorde hau.

Batzorde honen osaketa, eskualde-azpibatzerdeetan egitura litekeena, eta funtzionamenduaren erregulazioa ere bai, EUDEL-en esku geratuko da; edozelan ere, bakarka aritu baino, DAPEkin eta gainontzeko euskal Nekazaritza-Administrazioekin koordinatuz arituko da, eta 2004ko ekainaren 30a baino lehen osatuta egon behar du.

- Etorkizuneko Nekazaritza-Politika legean, beste aldetik, baserritarrak tokian tokiko Feria eta Merkatuetan sar daitezten oinarritzko araudia erregulatzea, hala badagokio.

Neurri honek ez dakar aurrekontu-partida berezirik, ezen inplikaturik dauden erakundeek ohiko aurrekontuetatik ontzat har ditzakete sortzen diren gastuak.

14. Ekipamendu eta zerbitzuen eskualde-garapena

1990. urteaz geroztik, euskal Nekazaritza-Erakundeek aintzat hartu duten ekintza-ildo nagusietako bat, beste batzuen artean, euskal landa-ingurunean ekipamenduak eta zerbitzuak sustatu eta garatzea izan da. Izan ere, urte horretan Arabako Ibarrek eta Arabako Mendialdea 5b zeritzon helburuan sartuak izan ziren, eta horrekin batera azpiegiturak, ekipamendu eta zerbitzuak garatzeko politika espezifikoak hasi zen, gure landa-ingurunearen jardura ekonomikoen aniztasuna bultzatzera ere jo eginez. Oro har hartuta, politika honek landa-inguruneek izan ohi duten despobolatzeari alderantzik emateko aukera eskaini zuen, bide batez eskualde horien bizilagunen bizitza-kalitatea ere nabarmen hobetuz.

Gaur egun, gure landa-ingurunean ekipamendu nahiz zerbitzuen garapenera zuzendutako ekintzei begiratuz, plangintza-eremu handi bitan oinarrituta daudela ikus daiteke:

- ❑ Berriki amaitutako Landa Garapenerako Egitasmoak (eskualde mailakoak); horien barruan, EAEren eskualde bakoitzaren landa-inguruneek azaltzen duten egoeraren diagnosi sakona biltzen da, bertan bultzatu beharreko ekintzen etorkizuna finkatuz. Ekipamendu eta zerbitzuei egokituz, ekintza guztiak esparru edo arlo nagusietan zehaztuta datoz (oinarritzko azpiegiturak, garraio eta komunikazio azpiegiturak, hezkuntza eta kultura, osasuna, etxebizitza, turismoa, aisialdia, eta abar), baita udal mailan zein toki mailan ere.
- ❑ EAEren Garapen Jasangarri Egitasmoa (2000-2006); bertan, Bruselak aldi berean finantzaturako neurri-sorta biltzen da. Horrekin batera, inplikaturik dauden erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, Europako Batzordea) epe horretan zehar izango duten gastu-aurrekontuaren esleipenak azaltzen dira, baita ekimen pribatuarenak ere eta aldi baterako finantzaketa maila. Neurri hauen artean, ekipamenduak eta zerbitzuak garatu eta sustatzeko ildo batzuk tartekatzen dira (IXe, IXf, IXh, IXi, IXj).

Gai hauen ekintzen instrumentazio kontuan, esan behar da nekazaritza-erakunde bakoitzaren oinarritzko arauditik abiatzen dela, urteko laguntza-programa berezietan adieraziz. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, adibidez, EREIN programa eta EAE LEADER + Programa Eragileak dira.

Neurri honen helburuei begira, Landa-Garapenerako Egitasmoek eskualde bakoitzerako ekipamendu eta zerbitzu batzuk ezarri dituztela nabarmendu beharra dago, sektorean

instalaturako gaztearen eskaerekin bat etortzeko orduan oinarrizkotzat hartu direnak (Ikus ezazue IV. ERANSKINA).

Horien artean, telekomunikazio banda zabalaren instalazioa aipatu behar da, LEADER + dela medio bideratuko dena. Horretaz aparte, haurtzaindegi txikien ezarpena, komunikazio nahiz garraioen hobekuntzak, landa-guneetako oinarrizko azpiegiturak (kutxazain automatikoak, telefono-kabinak, anbulantziak...), aisialdi eta kirol azpiegiturak, gazteei zuzendutako etxebizitzaren birgaitzea landa-guneetan, etxebizitza berrien eraikuntzarako asmoak –gazteek lehentasuna dutelarik-, ureztatzearen ezarpena, kultura mailako ekipamenduak eta haurren hezkuntzarako (eskolaurrekoei dagokienez ere) ekipamenduak eta abar.

Egitasmo honetan, beraz, ekintza hauek bideratzen dituzten urteko laguntza-programetatik (Eusko Jaurlaritzarenak zein Foru Aldundienak) abiatuz, EAEn eskualde bakoitzaren LIGE deritzogunetan adierazitako (eta IV. ERANSKINean bilduak) zerbitzuen eta ekipamenduen ezarpen progresiboari lehentasuna emateko ahaleginak egingo dira, ondorengo bost urteotan.

Horretarako, programa hauen aurrekontuen igoera progresiboa guztiz beharrezkotzat jotzen da, programa hauek gaur egun aplikatzeko unean kontuan hartzen diren diren lurralde eta populazio eremu zabalak (2R Udalerrietatik harantzago) aintzat hartzen baditugu.

Balioztatutako urteko gastuaren aurrekontua

Zentzu honetan, lau urteko epean urteko 4 milioi euroko gastu propio (Euskal Nekazaritza-Administrazioak) kopurua lortzeko asmoa dago, SLIGEn IXe ildoan, hots, *Landa ekonomiarako eta populaziorako oinarrizko hornikuntza-zerbitzuak* deritzogun ildoan. Horrek, gastu horren 1,7 milioi euroko igoera ekarriko luke (2002ko guztizko gastua 3,7 milioi eurokoa izan zen, horietako 1,4 milioi euro Bruselak finantzatu zituelarik eta 2,3 milioi euroko gastu propioa izan zelarik).

Ekintza osagarriak

Jadanik garatu diren neurrien taldean bildutako ekintza-sorta albo batean utzita, Egitasmoak hainbat ekintza osagarri biltzen du bere baitan, ondoren adierazten direnak hain zuzen ere:

15. Eskulan mailako zerbitzu-enpresa

Azken urteotan euskal nekazaritza-sektoreak azaltzen duen arazo gorrienetako bat, bestek beste, ustiategiek urteko sasoi jakin batzuetako zenbait lan egiteko beharrezkoak dituzten soldatako langileak aurkitzeko izaten duten zailtasuna da; gauza bera gertatzen da behin-behineko laguntza-pertsonala topatzeko orduan.

Jakina denez, arazo hau gure ustiategien batezbesteko tamainaren igoera progresiboarekin lotuta dago, baita sektorearen zaharkitze mailarekin eta gazteek ustiategietan sendi-laguntza aritzeko duten aldentzearekin.

Administrazioek eta ekimen pribatuek arazo hauei irtenbidea topatu nahirik lanean dihardute, hainbat ekintza-esparrutan (behi-ustiategien ordezkatzeko zerbitzuak, mahatsondo eta patatetarako

sasoiko langileen harrera, eta abar); hala eta guztiz ere, une hauetan sektoreak irtenbide zabalago baten beharra dauka, soldatako enplegu arloan nahiz behin-behineko enplegu alorrean, ustiatzeko behar dituzten ardura-kasuistika ezberdinak batuko dituen.

Gainera, Kudeaketa-Gune ezberdinetatik une hauetan prestatzen ari diren ordezkatzeko-zerbitzuak, oro har sano emaitza onak eman badituzte ere, lan-araudi eremuan izandako aldaketekin ez datoz bat. Egia esan, ez datoz bat ez zerbitzua ematen duen enpresaren egitura juridikoaren ikuspegitik (gaurko legediak ABLE-ETT bat izatea eskatzen du), ez ustiatzeko hartzaileen eskakizunen ikuspegitik (lan-arriskuetarako aurreikuspen-planak eduki beharra).

Horregatik guztiagatik, sektorearen gazteagozea baino urrunago begiratu, Egitasmo honen bidez EAEko ustiatzeko edo kooperatibetan *personalaz hornitzeko zerbitzuak* emango dituen enpresa bat martxan jartzeko asmoa dago.

Enpresa honek, lanean hasitakoan, ustiatzeko adierazten dituzten gaurko eskaerei erantzuna emango lieke, zenbait lanpostu-profiletan, hala nola:

- ❑ Espezializazio handiegirik ez duen pertsonala, edozein kooperatiba nahiz ustiatzeko premiak betetzeko gai dena, bai kanpaina-premiengatik bai bestelako beharregatik.
- ❑ Bajak, oporrak, trebakuntza-jardueretarako bertaratzeak eta abar beteko lituzkeen pertsonal aditu eta trebatua, nekazaritza-ustiatzeko buruz ari garelarik, batik bat behi-azienda eta baratzezaintzari dagokionez.
- ❑ Denboraldi batean edo kanpainen gertatzen diren espezializazio handiko beharrak egiteko helburuz kontratatzen den pertsonal trebatua: traktore-gidariak, nekazaritza-uztatzeko makina handien gidariak, eta abar.
- ❑ Ustiatzeko edo kooperatibek une jakin batean edo denboraldi batean eska dezaketen oso pertsonal kualifikatua: garraio-segurantza aholkularia, botikari bermatzailea, nekazaritzako injinerua eta abar.

Enpresa hau, gaiak aldatuz, sektorean instalatu aurretiko harremanen bat izan nahiko luketen nekazari gazteentzako haztegia izan liteke. Egoera zehatz bat dela kausa, enpresa-proiektu propiorik aurrera atera ezin duten gazteen kasuan, berriz, funtzio bera beteko luke enpresak, bide batez Egitasmoaren xedeak bultzatuz.

Halaber, enpresak egun osoz edo egun-zatiz lanean ari litezkeen langileen lan-burtsa mantenduko du, etengabeko trebakuntzarekin.

Enpresa hau martxan jartzeko orduan, bere funtzioen garapen progresibo filosofiarik helduko zaio; horrela, hasiera batean gaur egun Kudeaketa-Guneek behi azpisektorean betetzen dituzten lanak hartuko lirateke, eta ondoren bere eginkizunak beste azpisektore batzuetarantz bideratuko lituzke. Azken unean, sasoiko langileak kontratatzeko bitartekaritza-lanak ere egin litzake.

Enpresaren bideragarritasun-azterketak (Ikusi V. ERANSKINA), aldaketarik jasan lezakeen arren, honako alderdiak nabarmentzen ditu:

- ❑ *Forma Juridikoa*: Bigarren mailako kooperatiba, euskal nekazaritza-sektorean lanean ari diren Kudeaketa-Gune eta bestelako sektore-erakunde interesatu batzuen (Kooperatiba Federazioa, Mendikoi...) integrazioarekin.

- ❑ *Funtzionamendu-eskema:* Aldi Baterako Laneko Enpresa (ABLE/ETT) baten antzekoa; Hiru egoitza aske izango dira (Lurrealde bakoitzeko bat, ABLE/ETT araudiaren baldintzen arabera), eta hasierako fasean EAEn nekazaritza eta baso sektorean oinarrituko da enpresa. Dena den, bere lan-esparrua EAEn Nekazaritzako elikagaien enpresetara hedatzeko atea zabalik utzi nahi du.
- ❑ *Hasierako kapital soziala:* 180.000 euro, bertan sartutako kideek lau urteko epean ordaindu beharrekoak.
- ❑ *Martxan jartzearen gastu publikoaren aurrekontua:* jardueraren lehendabiziko hiru urteetan zehar, Foru Aldundiek 120.000 euro/urteko ustiategi-defizita onartu beharko lukete.

Aurreko planteamenduaren aukera legez, merkaturuan dagoen ABLE/ETT bat zerbitzu honetan espezializatzeko bidea egokia den ala ez ikertuko da. Horrez gain, nekazari kontratugilearen ekintza zuzena ere ikertu egingo da, Kudeaketa Tekniko-Ekonomiko Guneen aholkularitza zerbitzuak erabiliz (Foru Aldundi bakoitzaren behar eta irizpideen araberrako instrumentalizazioa).

16. Makineria komun zerbitzua

LIGE (ADR) batzuek, zenbait enpresaren bidez, abeltzaintzan lotutako lan ugari egiteko makineria eta gidariak eskaintzeko zerbitzu bat jarri dute honezkero: siloratzea, belar-ebakitzeak, belar-bolen prestatzea eta abar. Gaur egun zerbitzu hau Bizkaiko eta Gipuzkoako eskualde batzuetan ematen da.

Araban, berriz, makineria modu komunean erabiltzeko Kooperatiba batzuk (CUMAK) lanean ari dira, oso emaitza pozgarriekin.

Zerbitzu honek inbertsio mailako eta ustiategiaren ohiko gastu mailako aurrezte esanguratsua ekar diezaiokete gazteari. Hori dela eta, Egitasmoak mota honetako ekimenak sustatzeko asmoa du, agente interesatuen inplikazio progresiboaren aldetik, apurka-apurka ekintza-eremua EAEn nekazaritza-eskualde guztietara zabaldu arte.

Horretarako, ADRek enpresa honek edo antzekoren batek buruturiko lanen beharrezko ekipamendua bereganatzeko kostuaren % 50 emango du (makineria-inbertsioak); hori ez ezik, Lurrealde bakoitzean bigarren mailako kooperatiben ezarpen progresiboa ere bultzatuko da, gai honetan dauden egiturak beretzat hartuko dituztenak.

Neurri honen ibilbidearen lehendabiziko urterako balioztatu den aurrekontua, 120.000 eurokoa da. Foru Aldundiek finantzaketa hau egingo dute (40.000 euro/Aldundi bakoitzeko), SLIGE dela bitarte.

17. Nekazaritzaren dibertsifikazioa ustiategian

Euskal Herriko landa-espazioen funtzio-aniztasunak, oro har hartuta Mendi-Zonaldean dauden aldetik, ustiategien jarduera anitza dakar: alde batetik, produkzio aniztasunari erreparatuz, eta

bestetik, jarduera-azpisektore berrien sarrerari dagokionez (landa-turismoa, produktuen eraldatzea, artisautza, ehiza eta arrantzarekin lotutako jarduerak...

Dibertsifikazioaren eta funtzio-aniztasunaren aldeko posturak, hain artez ere, badauka esangura berezi bat nekazari gazteen kasuan, sektore ikuspegi orokor batetik abiatuz ere egin daitekeen arren.

Lehenik eta behin, errentak osatzeko eta diru-sarrerak dibertsifikatzeko abagunea eskaintzen du: hori hala izaki, sektorerako sarrera erakargarriago bilaka daiteke, diru-sarrera maila egokia izatea hobeto bermatzen duelako. Bigarrenez, jardueraren dibertsifikazioak ustiategiaren kudeaketa zaildu egiten duelako, eta hori hala delarik, sektore gazteagotu eta egokiro trebatu batek konplexutasun horri askoz hobeto egin diezaikeelako aurre.

Jarduera berri hauetako batzuk duela urte batzuetatik hona garatzen ari dira, arrakasta lortuz eta arau-eremu propioarekin, nekazalturismoa esaterako. Era berean, dibertsifikazio-jarduera multzoa lineatzat hartu izan da SLIGEn barnean, eta horregatik finantza-eremu berezia dauka.

Dena dela, errealitateak edo praktikak erakutsi duenari begira, neurri hauek sarri askotan oso egoera espezifikotan egin daitezkeen jardueretan baino ez dira gauzatu, burokrazia, teknika eta ekonomia arloetako eskaera handiekin. Horrek, borondate berritzailea albo batean uztera bideratzen du.

Elikagaien eraldatze kasu zehatzari dagokionez, oso osasun eta teknika baldintza zorrotzak jartzen dira; ondorioz, jarduera honetan lege-baldintza guztiak betez aritu ahal izateko oso inbertsio handiak egin beharra dago.

Izan ere, osasun-erregistroa jasotzeko orduan adibidez, nekazaritza-industria handi batek eta etxeko ekoizle txiki batek osasun-araudi berberak jasan behar dituzte. Produkzio-bolumen tamaina, ordea, biziki txikiagoa da bigarrenaren kasuan, eta osasun-arriskuak ere bai.

Ildo honetan, ekoizle guztiei aplikatu dakizkiekeen oinarritzko higie baldintza batzuek gain, teknika eta osasun mailako beste eragile eta eskakizun ugari dago. Hala, fruta-produkzio txiki batez aprobetxatuz nekazalturismo etxe batean saltzeko marmelada sortu nahi izatea, adibidez, elikagaien multinazional erraldoi baten produkzioarekin parekatu egin ohi da. Gainera, kontraesan itzela azaltzen da sarritan: enpresa horiek, hain zuzen ere, elikadura-eskandalu handien sortzaileak izaten dira, teoriarik behintzat baldintza guztiak betetzen dituzten arren.

“Etxeko produktua” aipatzen dugunean zera adierazi gura dugu: ustiategiko lehengaiak baliatuz baserritarrek produzitzen duten produktua, hasierako produktuak eraldatze osagarri bat jasotzen duelarik (funtsean tradizionalak diren lantze metodo/prozesuak direla medio). Gaur egun halako produktuak eskuratzeko gero eta eskaera handiagoa dagoela kontuan hartuta, produktuen ziurtasuna eta osasun-kontrola eta eskaera bera uztartu behar dira.

Gure inguruko beste herrialde batzuetan jadanik lortu dute aipatu dugun uztardura hori, Frantzian eta Austrian adibidez, non mota honetako produkzioak onarturik eta legez ezarriak baitaude. Hori hala dela, lehenago adierazitako eskaera sozialari erantzuna emateko bidea gertatu da; horrez gain, nekazariak esku-hartze handiagoa izan du balio-kateetan, ezen bere ustiategian merkaturatzeari dagozkion mekanismoak sartu ahal izan dituen, bitartekorik ekidinez.

Arazo honi irtenbiderik topatu nahirik, Egitasmoak neurri honen barruko ondoko ekintzak sustatzea proposatzen du:

- Lau urtetan 1 milioi euroko urteko gastu propioa (Euskal Nekazaritza-Administrazioak) lortzea, SLIGEn lxx ildoan, *Nekazaritza-eremuko eta antzeko eremuetako jardueren dibertsifikazioa*, alegia. Horrek, gastua 0,6 milioi eurotan igotzea eragingo luke (2002an burututako guztizko gastua, 0,8 milioi eurokoa izan zen, Bruselak 0,4 milioi euro ordaindu zituelarik; gainontzeko 0,4 milioi euroko kopurua, berriz, gastu propioari egokitu zitzaion).
- “Etxeko produktuen” berezitasuna arautu eta normaltzeko araudi propioa sortzea (Etorkizuneko Nekazaritza-Politikaren Legean beharbada islatuko litzatekeena). Osasun Sailarekin negoziatu beharko da, osasun-araudia produkzio hauen berezitasunei ondo egokitu ahal izateko, berariazko osasun araudi teknikoa prestatuta.
- Nekazari gazteek, edo beraien taldeek, merkaturatze propiorako kanalak martxan jartzeko neurri bereziak. Ildo honetan, DAPen EGOKI Dekretua malgutu beharko litzateke, nekazari gazteak merkaturatzean errazago sar daitezen ahalbidetuz.

18. Nekazaritzarako aseguruak

Gero eta gehiago dira nekazaritzarako aseguruaren harpidetza egiten duten nekazariak, bereziki nekazari gazteak nabarmenduz. Etorkizunari begira, ostera, harpidetza handiagoa lortu beharko litzateke, gero eta profesionalizatuagoa den nekazaritza-ingurune honetan ohiko praktika bihurtu dadin.

Une honetan, nekazari batek aseguru baten harpidetza egiten duenean ENASAK (burutzeko dagoen transferentzia) zati bat finantzatzen du, Foru Aldundiek beste zati bat ordaintzen dutelarik. Asegurua hartu izanagatik primaren finantzaketa-portzentaiari dagokionez, Foru Aldundiek kostu horren % 18raino jo dezakete, baina horietako bateren baten benetako finantzaketa ez da horraino iristen.

Beraz, Egitasmoak honakoa proposatzen du: Foru Aldundiek aseguru-primen harpidetza batean aplika daitekeen maximoa finantzatzea (onartutako modalitate ezberdinetan), Gaztearen Bulegotik datorren nekazari gaztea denean, nekazariak gaztetzat jotzeko adin-muga lortu bitartean (40 urte).

Beste aldetik, errentak ziurtatzeko formulak bultzatzen ahaleginak egingo dira, azpisektore konpentsazio fondoak sortuz. Nekazariak eurek fondo horiek autoelikatuko dituzte, emari publikoen laguntzarekin, merkaturako egoera kaltegarrien aurrean erabiliko liratekeenak.

19. Erakunde-sariak

Egitasmo honetan alde aurretik jorrotutako beste faktore batzuk –ustiategien errentagarritasun ekonomikoarekin eta landa-guneetako bizitza-kalitatearekin lotuak- alde batera utzita, prestigio urria duen sektorearen islak eta nekazarien euren autoestimua sustapen eraginkorra behar dute.

Ildo honetan, DAPek “sektorean burututako ibilbide profesionala” estimatzeko sari batzuk ezarri ditu, helburu bikoitza dutenak: alde batetik, egokiro burutzen den lanari golardoa ematea gizarte mailan, eta bigarrenez, sektorearen gainontzeko profesionalak ereduztat har dezaketen eragingarri izatea, batez ere sektorean sartutako gazteen kasuan.

Ildo honen barruan, DAP deritzenek sari-sorta bat artikulatzeko proposamena jaurti da, nekazari gazteek garaturiko proiektuak saritzeko. Sari horiek, behin Egitasmoa martxan jarri osteko zenbait urte igarotakoan ezarriko lirateke, hainbat alderdi baloratuz: izaera berritzailea; enpresa-arrakasta; beste sinergia batzuekiko sinergiak sortzeko ahalmena, nekazaritza arlokoak izanik ala ez; Ingurugiro-jasangarritasuna....

Sari hauek urtero banatuko lirateke, bai DAPek emanak, bai beste erakunde batzuek emanak, publikoek (Foru Aldundiek bereziki) eta pribatuak (enpresari-elkarteak, Merkataritza Ganberek...). Hona hemen sariak eskuratu ditzaketen proiektuak:

- ❑ Nekazari Gaztearen Bulegoaren monitorizazio-egitasmoa aurrera errotan den urtean zehar irtetzen diren proiektu guztiak, horietarako sari ildo espezifikoak ezarriko delarik.
- ❑ Jadanik tinkatutako proiektu guztiak, beti ere nekazari gazte baten ekimenez bultzatuak badira.

Sari hauetarako aurrekontu publiko dotazioari (DAP eta Foru Aldundiek emana, alegia) helduz, urteko 12.000 eurokoa izanen da, Egitasmoa abian jarri eta hirugarren urtetik aurrera (2008).

20. Egitasmoa hedatzeko kanpaina


Egitasmo honek ez luke zentzurik izango, bere ezarkuntza sozialari bidea emateko hedatzeko kanpaina bat egin ezean. Neurri honek berebiziko garrantzia du, lehenik eta behin sektorean sar litezkeen nekazari potentzialak bereganatzeko, sektore barnean zein kanpoan. Bigarrenik, gizartea oro har Egitasmo honetan planteatu den xedearen muntaz jabe dadin.

Kanpaina hau maila bikoitzean ulertzen da:

- ❑ Alde batetik, Egitasmoa sektore mailan ezagutzera emanik, barneko komunikabide kanalak erabiliz. Sektorearen egiturak eta antolamenduak ere mobilizatuko lirateke, EAEren nekazari gazteen Egitasmoaren berria (eta bertan sartzeko mekanismoak ere bai) “kapilaritatez” zabal dezaten. Ahalegin hau denbora batean zehar mantendu beharko da, eta laguntza edo bultzada eskaintzeko elementu igorle batzuk behar izango ditu, hala nola liburuxkak, sektore-komunikabideetan tartekatutako berriak eta iragarkiak...
- ❑ Bestetik, Egitasmoa modu orokorrean aditzera emango dute, hedapen zabal-zabaleko komunikabideetan (telebista, irrati eta egunkariak) bideratuko liratekeen 15 eguneko kanpaina zehatzak direla bitarte.

Hedatze kanpaina honen aurreneko urterako aurrekontu-dotazioa 360.000 eurokoa da.

EAE-KO NEKAZARITZA-SEKTOREAN GAZTEA INTEGRATZEKO PROIEKTUAREN ESKEMA



VI. EGITASMOAREN AURREKONTU-FINANTZA LABURPENA

NEURRIAK	URTEKO GASTU-AURREKONTUA		ERAKUNDE ARDURADUNA	FINANTZAKETA
	1. URTEA (M€)	GAINONTZ EKOA (M€)		
1. Gaztearen Bulegoa	Z/G	Z/G	FAen Nekazaritza-Saila	Ohiko Aurrek. Igoera FA (ENBak)
2. Koordinazio-zerbitzua	0.25	0.25	EJ NAS	Ohiko Aurrek. Igoera Mendikoi
3. Nekazari Gazteen Estatutua	-	-	EJ NAS	Finantza inplikaziorik gabe
4. Kapital Hazi Laguntza	1.0	2.0	EJ NAS	DAP ohiko Aurrek. Kapital-arriku Elk.
5. 1. Inst. NBP Laguntzak.	Z/G	Z/G	FAen Nekazaritza-Saila	FAen gastu propioaren igoera (SLIGE)
6. Kreditu espezifikoak	Z/G	Z/G	FAen Nekazaritza Saila EJ NAS	FAek: FAen hitzarmenak + interesen hobariak (SLIGEak) DAP: abal-hornidura
7. Babesa	0.18	0.18	FAen Nekazaritza S.	Foru Aldundien Ohiko Aurrek.
8. Laguntza fiskalak	-	-	FAen Ogasun S.	F. Aldundien Ogasun diru-sarrereren murrizketa
9. Belaunaldi-ordez. pizgarriak.	0.3	0.3	EJ NAS	DAPen Ohiko Aurrek.
10. SLP Ekintzak	-	-	Foru Aldundien Nekazaritza S. EJ NAS	Finantza-inplikaziorik barik
11. Lurralde Bitartekaritzarako Gunea	0.185	Z/G	EJ NAS	IKT Ohiko Aurrek. igoera
12. Herri-basoak eta komunalak	-	-	EUDEL FAen Nekazaritza S.	Finantza-inplikaziorik barik
13. Udal-sentsibilizazioa	-	-	EUDEL	Finantza-inplikaziorik barik
14. Ekipamendu eta zerbitzu eskualde-garapena	2.5	4.0	FAen Nekazaritza S. EJ NAS	DAP Ohiko Aurrek. (Erein) FAen Ohiko Aurrek. (LIGEak IXe)
15. Aldi Baterako Lan Enpresa	0.12 ¿? 0,18 CAP.SOC	A/D	Nek.-Koop. Elkartea/ Ekonomia eta Teknikak Kudeaketa-Guneak/FAak	Kapitalean inplikaturiko erakundeen Ohiko Aurrek. (FAak)
16. Makineria komun zerbitzuak	0,12	0,12	FAen Nekazaritza Saila	FAen Ohiko Aurrek.
17. Jarduera Dibertsifikazioa	0.5	1.0	FAen Nekazaritza Saila EJ NAS	DAPen Ohiko Aurrek. (Erein) FAen Ohiko Aurrek. (LIGEak IXg)
18. Nekazaritza-Aseguruak	Z/G	Z/G	FAen Nekazaritza Saila	FAen Ohiko Aurrek.
19. Erakundeen Sariak	-	0.012	FAen Nekazaritza Saila EJ NAS	DAP eta FAen Ohiko Aurrek.
20. EGITASMOAREN Hedatze-Kanpaina	0.36	Z/G	FAen Nekazaritza Saila EJ NAS	DAP eta FAen Ohiko Aurrek.

Z/G (Zehaztu gabe): Ardura duen Erakundeak zehaztu beharrekoa (1,5 eta 6 neurriak). Egitasmoak, gaur egungo gastuaren aldean sortutako gastu-igoera baino ez aipatu.

VII. EKINTZAK ABIAN JARTZEA ETA KRONOGRAMA

Egitasmoa martxan jartzeak duen helburua, berriz, 2005ean operatiboa izatea da. Dena den, aurreikusten diren neurrien aniztasuna ikusita, baliteke horietako batzuk data horren ondoren abian hastea.

Kontuan izan behar da neurri askoren arteko erlazioa, baita inplikaturik dauden erakunde-esparru ezberdinak; Hori dela eta, Egitasmoaren abiamena *Gidatze-Batzorde* batek koordinatua izango da. Batzorde hori, Egitasmoaren funtzionamendurako denbora eta prozeduren muntatzeaz arduratuko da (kudeaketa-hitzarmenen eta sostengu-araudien diseinua, inplikaturiko erakundeekiko negoziazioa, prozedura-gidaliburuaren sormena...)

Ondoren, Egitasmoan aurreikusitako neurri ezberdinen abiamenerako aurreikuspenak biltzen dituen Kronograma adierazgarri bat azaltzen da. Aipatu kronograma hori 2008 urtera arte iristen da, zenbait neurri martxan jartzeko aurrez ikusi den azken urtera arte, alegia.

EGITASMOAREN EKINTZAK ABIAN JARTZEKO KRONOGRAMA

Urtea Neurriak	2004				2005	2006	2007	2008
	1. Hiruhil	2. Hiruhil	3. Hiruhil	4. Hiruhil				
1. Gaztearen Bulegoa		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
2. Koordinazio-Zerbitzua		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
3. Nekazari gaztearen estatutua	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
4. Kapital/Hazi laguntza		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
5. 1. instalaziorako NPB/PAC laguntzak	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
6. Kreditu espezifikoak		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
7. Babesa				*****	*****	*****	*****	*****
8. Laguntza Fiskalak		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
9. Belaunaldi-ordezketza sustatzeko pizgarriak			*****	*****	*****	*****	*****	*****
10. SLPk (PTS) buruturiko ekintzak	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
11. Lurren Bitartekaritzarako Gunea	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
12. Herri-baso edo mendiak	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
13. Udal-sentsibilizazioa		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
14. Ekipamendu eta zerbitzuen eskualde garapena	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
15. Alda Baterako Lan Enpresak	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
16. Makineria común zerbitzuak		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
17. Jardueraren dibertsifikazioa		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
18. Nekazaritzarako aseguruak		*****	*****	*****	*****	*****	*****	*****
19. Erakunde-sariak							*****	*****
20. EGITASMOA hedatzeko kanpaina			*****	*****	*****			*****

***** Neurriak abian jartzea

***** Neurrien eraginkortasuna

VIII. EGITASMOAREN JARRAIPEN ETA EBALUAKETA

Denbora aldetik duen aplikazio eremu zabala kontuan hartuta, bertan proposaturiko neurrien baliozkotasunari dagokionez tresna malgutzat hartua da Egitasmoa. Beraz, bideragarritasunari buruzko kontrol jarraituari irekia da, bai garapenean inplikaturiko Erakundeei dagokienez bai Egitasmoaren hartzaile nagusien sektore-agente ordezkariari dagokienez: Hots, nekazari gazteen sektore-agente ordezkariak.

Illo honetan, Egitasmoaren Jarraipenerako Batzorde edo Komisio bat abian jarri da, barne mailan, bertan Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien Nekazaritza Sailek, Nekazaritza Sindikatuek, Kudeaketa Tekniko-Ekonomiko Guneek eta Nekazaritza-Kooperatiben Federazioak esku hartzen dutelarik.

Neurri bakoitzerako eragin-adierazle jakin batzuk hautatu dira, urte osorakoak. Horrela, Egitasmoan inplikaturako edozein partaidek antolatutako jarraipen eta ebaluaketa egin litezke.

Edonola ere, *Egitasmoaren xedeetan* (IV. Atala) jadanik Egitasmoaren arrakasta ebaluatzeko adierazle nagusia aipatu da, indarrean dagoen 10 urtetan zehar 1000 gazte sektorean sartzea, hain zuzen. Gainerako adierazle guztiak aurreko honetan ardaztuko dira.

Era berean, Egitasmoak badu beste xederen (IV. Atala) bat ere bai, hala nola 40 urtetik beherako (< 40) ustiategi-titular portzentaiaren joera aldatzea, beti ere Nekazaritza-Erroldak ahalbidetzen duen ebaluaketa dinamikotik begiratuta. Beraz, 2010 urtean (2009ko datorren Nekazaritza-Errolda argitaratzeko urtea) Egitasmoaren arrakasta neurtzeko lehendabiziko test adierazgarria izango dugu, aldagaiaren Errolden arteko bilakaera (1999-2009) ikusiko baitugu.

Ondoren, neurri bakoitzerako aurreikusitako adierazleak aipatzen dira, ebaluaketa eta jarraipena egin ahal izateko.

Ahal den neurrian, adierazle mota bi azaltzen dira, kuantitatiboak eta kualitatiboak. Kuantitatiboak, urterakoak dira. Beste aldetik, kuantifikazioa EA Eren lurralde osorako egiten da, Lurralde Historiko bakoitzeko aipatu diren zifren herena asignatzea kalkulatzuz.

Denbora aldetik Egitasmoak betetzen duen eremu zabala dela eta, neurrien gauzatze maila ikusi ahala adierazle kuantitatiboak berraztertu egingo dira.

NEURRIAK	AD. KUANTITATIBOAK	AD. KUALITATIBOAK	DHARRAK
1. Gaztearen Bulegoa	Aintzat hartutako kontsultak 200 * Proiektu monitorizatuak 60 Proiektu ziurtatuak 110	Bulegoaren arduradunen prestaketa eta hautaketa (aurreneko urtea)	*Datu balioetsia, izaera linealik gabea.
2. Koordinazio-Zerbitzua	Proiektu bateratuak 100	WEB sorrera Monitore eta tutoreen datu-base sorrera Proiektuen dokumentu-base sorrera	
3. Nekazari Gaztearen Estatutua		Etorkizuneko Nekazaritza-Politikaren Legean edo laguntza-araudian islatua	
4. Kapital/Hazi laguntza	Subentzioa jasotako espedienteak 110 Laguntza-bolumena 1,9 M€		
5. 1. Instalaziorako NPB/PAC laguntzak	Subentzioa jasotako Espedienteak 110 Laguntza-bolumena 2,2 M€	HIRU LHK eskatutako baldintzen homogeneizazioa	Egitasmoaren prozesuaren bidez onartutako proiektuetan baino ez
6. Kreditu espezifikoak	Espediente sostengatuak 90 Kreditu-bolumena 8,1 M€ Volumen hobaritua 0,4 M€ Itunpeko abalak 10 Volumen esleigarria abaletan 0,6 M€	Hitzarmen berriak finantza-erakundeekin	Egitasmoaren prozesuaren bidez onartutako proiektuetan baino ez
7. Babesa	Urteko bekak 50 Laguntza-bolumena 0,18 M€		
8. Laguntza Fiskalak	Errentaren gaineko Zergaren % 50eko exentzioa lehenengo hiru urteetan, % 40koa laugarrenean eta % 30ekoa bosgarrenean *	Exentzio fiskalen homogeneizazioa hiru Lurralde Historikoetan	*Gaztearen instalaziotik
9. Belaunaldi-ordezkararako pizgarriak	Expediente kopurua 500 Laguntza-bolumena 0,3 M€		
10. SLPk (PTS) burututako ekintzak		SLP onartu osteko arau-islak	
11. Lurren Bitartekaritzarako Gunea	Aintzat hartutako kontsultak 30 * Esku-hartze bateratuak 15	Ustiategi nahiz lurren datu-base grafiko eta alfanumerikoak	*Datu balioetsia, izaera linealik gabea
12. Herri-baso edo mendiak			Herri-basoen kudeatzaileei eta Udalerriei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak
13. Udal-sentsibilizazioa	Jasotako gatazkak 50 * Konpondutako gatazkak 20 Udal-Araudiaren aldaketa 5	Batzordearen sorrera EUDELEN baitan	*Datu balioetsia, izaera linealik gabea
14. Ekipamendu eta zerbitzuen eskualde-garapena	Gastu propioa ekipamenduetan 3 M€ *		*Batez besteko gastua
15. Aldi Baterako Lan Enpresa	Hasierako ustiategiak 150 * Ustiategi potentzialak 400 *		Ordezkapen-Zerbitzuaren instrumentaizazioa Aldundi bakoitzaren aldetik *Datu balioetsia, izaera linealik gabea
16. Makineria Komun Zerbitzua	Subentzionaturiko espedienteak 5 Laguntza-bolumena 0,12 M€		
17. Jardueraren dibertsifikazioa	Gastu propioa 0,8 M€ *		*Batez besteko gastua
18. Nekazaritzarako Aseguruak	Nekazari gazteen aseguruetarako emariak: 0,6 M€ *		*Datu balioetsia, izaera linealik gabea
19. Erakunde-sariak	Saritutako proiektuak 1 * Homidura 0,006 M€		*2008tik aurrera
20. EGITASMOA hedatzeko kanpaina	Irteera-aurrekontua 0,36 M€ *		*Aurreneko urtea

